

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Purita Zabalo Zabalo

*Antzuola
Gipuzkoa (1934)*

Aurkibidea



Biografia



Buztinzuri kaleko "Elkanonekua" (gaur egun "Txarronanekea") izena duen etxean jaio zen 1934an eta bertan bizi da. Oso txikia zela hasi zen eskolan: bi urte ingururekin. Josten ikasi eta jostun lanetan ibili zen urtetan. 12 urterekin dantzari hasi zen Gregorio Santa Cruz eibartarrak irakatsita. Antzuolako dantzari batekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten. Asko daki kanpai-jotzeen inguruan. Antzuolako kantu eta jolasak biltzeko lanean ere oso lagungarriak izan ziren berak emandako azalpenak.

Zintak

ANT-018

- **Proiektua:** Antzuolako kantu eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iparragirre, Marijo
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ANT-022

- **Proiektua:** Antzuolako kantu eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Iparragirre, Marijo
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Audio Analog

ANT-031

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Deogracias Horrillo, Marijo
- **Data:** 1998-03-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-070

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-24
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ANT-071

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-03-24
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

Pasarteak

1. "Zapateros ambulantes (...) saltzen saltzen.. " kanta ezaguna

- **Erref:** ANT-018/001
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Zapateros ambulantes (...) saltzen saltzen.. " kanta ezaguna.

Transkripzioa

Zapateros ambulantes
amigos de trabajar
aquí venimos pidiendo
el aumento de jornal.

Niñas bonitas, bellos luceros,
tener amores con los zapateros
porque trabajando en obras finas
buenas [...] habéis de gastar.

Saltzen, saltzen
txakur txiki baten karameluak
"está muy bien"
esaten du konfiteruak.

Cuando vamos a Otxandiano
Santa Maña egunian
tralaralara
tomaremos chocolate
sonbreruaren gaiñian.

Cogiditos de la mano
venimos en buena unión
bilbainitos y bilbainas
que se quieren con amor.

Vivan las canciones de Bilbao
Que viva la alegría

de la juventud la unión
que viva la armonía
[viva] el puente San Antón
y el Arenal
viva las mocitas (bis)
de esta capital.

Viva nuestro gran Bilbao
Y su rico txakolí
Viva la merluza frita
Y el bacalao al pil-pil.

Si queréis saber, yo os lo diré
Cuántos corazones tiene una mujer.

2. "Soy de Santurce" kanta

- **Erref:** ANT-018/002
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:01:37. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Soy de Santurce" kanta.

Transkripzioa

Una, dos, tres,
cuatro, cinco, seis,
siete, ocho, nueve,
nueve y una diez.
Pues suman diez.

Soy de Santurce, bonita aldea
Soy del pueblo que [gana]
en las regatas y en las traineras.

Lara-ran, laraalaran...
de proa a popa.
Lara-ran, laraalaran...
de proa a popa.

Si tu eres el mar
que yo soy la arena
y la mar me lleva (bis).

Si a la pelota [yo] jugara
Y [...] perdiera
Si a la pelota [yo] jugara...

- Oin ahaztu jata...

3. "Levántate Jose.." kanta

- **Erref:** ANT-018/005
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

"Levántate Jose.." kanta.

Transkripzioa

Levántate, José y enciende la vela
y mira quién anda por la carretera.
Son los angelitos que van [de] carrera.
y llevan a un niño vestido de seda.
¿De quién es ese niño? Es de María.
¿Dónde está María? Hablando con José.
¿Dónde está José? Hablando con San Pedro.
¿Dónde está San Pedro?
Abriendo y cerrando las puertas del cielo. (bis)

- Gure ume-denporia oso berezixe izen zan, e? Gerra-ostia ta...
- Bai.
- Ta hori ze zan, korrua edo kantua?

Tocan a misa, rezan a Dios.
Santa María, madre de Dios.
Arroz con leche, me quiero casar
con una señorita de esta ciudad.
Que sepa coser, que sepa bordar,
Que sepa hacer las camas [de esta...].

- Horixe.

4. Asto-astoka zelan egiten zen

- **Erref:** ANT-018/011
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Asto-astoka zelan egiten zen.

Transkripzioa

- Hori asto-astoka. Gaiñian jarri zera eta pelotiakin [batari bestera] pasatzen. Zian lau edo behian ta lau goixan edo holan.
- Osea, lau makurtuta ta lau zutik?
- Bai, lau zutik. Eta gero botatzen, ezta? Ta jausten jatzunian, ba, behekuak, esto... behekuak hartu bihar zeban pelotia. Ta klaro, "alto!" esaten zebanian, geratu ein bihar ziñan. Ta klaro, noraiño juten ziñan... pelotia gertuan baldin bazeuan ondo, baiña joten baldin [bazotsun, zu...].

5. Kantoeka zelan egiten zen

- **Erref:** ANT-018/012
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Kantoeka zelan egiten zen. Txintxurruka nola egiten zuten; kalderonka jolasten zuten askotan.

Transkripzioa

- Kantoeka. Hori kantoeka zan hori arbolakin, arboletan ta...
- Bai, pelotiakin ibiltzen zan.
- Pelotiakin.
- Hori ze zan, danok alde baten ipiñi ta batek pelotiakin...
- Gu illaran. Gero gehixenien bankuan jartzen giñan. Eta handikan botatzen zeban pelotia, ba, lehelenguari. Harek, ba, hartu harek ta [ahalik eta gehixen]...
- Eskuetan retenidu ez zeban ein biher e...!
- Ez, ez, ez, ez. Pelotan bezela bota bihar ziñuan.
- Eta gero ein bihar ziñuan zuk, bost leku edo ikutzeko baldin bazeukezun bestiak haura pelotia hartu ta hona etorri bittartian, harek ikutu ta zure lekura juaten baziñen, ya pasa eitten ziñuan, baiña bestela, atzera berriz jun bihar ziñan pelotia botatzera. Horixe.
- Oseake, gelditzen zana gelditzen zan pelotia botatzen han...
- Bai, ez bazeban [lehenao urtetzen] hor zera... ba, zuk pelotia eskuekin jo ta bota ta haura billa zoian bittartian, zuk horrek, arbola horrek ikutzeko... [...] baiño lehen hartzen bazeban pelotia [...] ta joten bazinutzen, ba gero zu pelotia botatzen ta haura han.
- Gero kalderonka ta be bai. Guk jolasak holakotxiak, txintxurruka ta kalderonka ta...
- Bai, kalderonka...
- Tortoloska be bai...

6. Gorpuzti Eguna pasa eta gero, "ixatara" jolasten zuten

- **Erref:** ANT-018/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Gorpuzti Eguna pasa eta gero, "ixatara" jolasten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta gero, ba, "Corpus Christi" ondorenia ta ixak [eitten giñuzen]. Haura demandak!
- Ze?
- Ixak. Ixak dia bedar luze horrek...
- Ixak badakizu zer dan? Bedar luze horrek uretan [...]
- A! Bai, bai, bai.
- Ba, hori botatzen zan kale guztira.
- Bai, bai, bai. Prozesiñua pasautakuan...
- Gero harek batu ta elizpera eruan. Elizpian barrenian ipiñi eta izeten zan, ba, batzuk juten zien elizian beste aldera eta harek...
- Bi grupo eitten zian.
- Bi grupo. Bai, bi grupo egoten zian orduan be.
- Eta batzuk gordetzen zian ixakin tapau-tapau [eitten] zian. Bat gordetzen zan edo bi be bai. Bi be egonda nao, e! Eta gero beste bat gordetzen zan kanpaia joteko lekuan.
- Baiña gehixao baldin bazian be bai...
- Barruan! Eliz-ataixan! [...] kajan sartuta ta hola. Ta gero bestiak jun harutz ta igarri ein bihar zebe zein zan azpitan zeuena.
- Azpitan zein zeuan...
- A! Eta ze eitten zan? Galderak edo eitten zan?
- Ez! "Fulano, fulano, fulano..." esaten zebe harek. Eta [korrua zeuanetik] ertetzen zeban ta igarritta baldin bazeuan, ba, [bestiari laga]. Ta igartzen ez bazeban, berriz be harek [paga] ein bihar.
- Zelako demandak! Jolin... arrazoia.... Ta arrazoia eukiko zeban, e!
- Ni askotan akordatzen naiz.
- Enee! Gu orduen umiak eta, ezta, ta ez konprendidu, baiña guk harei eitten gontsan destrozua guk hari! Elizia garbitzia [zer dan]... Dana zikintzen gontsan harekin. Eta enee... demanda baten [...]
- Baiña umiak beti ume...
- Bai, baiña...
- Guk, gaiñera, tradiziñua ez dakit noizkua be ya, e...

7. Urte sasoi bakoitzean jolas bereziak egiten ziren

- **Erref:** ANT-018/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Urte sasoi bakoitzean jolas bereziak egiten ziren. Garizuman kalderonka, "ixaka" egiten zen. Neguan antzerkiak eta horrelakoak egiten zituzten. Dirua ateratzen zuten.

Transkripzioa

- Ta, orduan, epoketan, gauza bereziak zeren: garizuman kalderonka ibiltzen zan, eta orduan ixeka eta, bueno, bazeren, hola, gauza bereziak, ezta?

- Eta neguan? Neguan, ba, nola ez genkan ezebe, [...] teatrua eitten zebeñian, ba, mutillak edo, ba, bueno, espektakulo puskat ta [...]. Bestela ez giñuan ezer eukitzen...

- Gero, bastante teatro be bai. Bastante teatro be bai ein giñutzen, e? Bastante teatro be bai. Geure kasetan be bai eitten [giñuan]. Ni akordatzen naiz, gu asko eindakuak giñan, e? Hor [karobixan] egoten giñan, bai, zerakin, Juanita Telleria ta [...] ta hor [...], eta [Kontxaneko] horretan, oseake, plazoleta horretan, bueno... zenbat teatro eindakuak...!

- Geuk be bai [...]

- Eta... Bai, baiña guk dirua etaratzen giñuan!

- Ta geuk ez giñualakuan etaratzen, ala?

- E?

- Errifak eta danak [eukitzen] giñutzen ta... [...] guk eitten giñuan negoziua!

- Horko medallak eta horko zerak eta... Etxeko trapu zahar danak batu ta eruan ta...

- [Kaleko andrak] etortzen zian eta [...]

- Eszenarixo dana [...] zakuekin ta.

- Baiña [kaleko andrak] eta danak, e? Etorri... Han? Ta guk eukitzen giñuan zerian, este... teatrua, jantzi ta danak eitten giñan [Kontxaneko]... han almazen bat badao, ba? Han...

- Neu be akordatzen naiz horrekin.

- Han zertu eta hantxe eitten [giñutzen].

- Orduan kreatibidadia [...]!

- Kreatibidadia? Eta guk [...]

- Klaro, besterik ez zeuan eta!

- [...]

- [...], haura zan... haura espektakulua izeten zan, e...

- Horixe! Aber, ze zeuan orduan?

- Lauretan baldin bazeuan teatrua, hiruretarako juten hasitta jentia, lekua hartzera, bestela ez zan lekuri egoten ta!

- Bai, bai, bai.

- Ez zan beste espektakulurik egoten ta!

- Klaro.

- Akordatzen naiz batekin, bazeuan, liburu bat geunkan zerian, eskolan, ta han...

- [Eskolako konturik...]

-... harekin akordauko zara. Eskola ataixan asko eitten [...] e? Ta behin, handik [...] Ta ez dakit, ez naiz akordatzen zein zan! "Hola, Fernandito, que aplicado estás" Ez zara akordatzen [...] Ta [...] hasi zan [...]. Ze [...]... baiña ezin akordauta nao zein zan! Klaro, ikasi eingo zeban...! Buruz ikasten da, baiña badakizu zenbateraiño erderia eukiko giñuan guk orduan ta...

8. Eskola txikian Maria irakaslearekin euskaraz egiten zuten

- **Erref:** ANT-018/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:28:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Baserriko umeek erdara gutxi. Kaletarrek erdara gehiago zekiten. Eskola txikian Maria irakaslearekin euskaraz. Baserrietako umeak, 5 urterekin jaisten ziren herrira. Nesken artean erdara gehiago.

Transkripzioa

- Eta hori, gaiñera, eskolara juten giñanetik erderaz eitten giñuala, e?
- Bai, bai, bai...
- Klaro, ba!
- Kalekuak-eta, ba, eskola txikira juten zianian. Gu, baserritik eta, ba, sei urtera arte ez giñen, edo bost urtera arte, kalera etortzen ta [orduntxe], ba, [eskolan...]
- Eskola txikixan Mariakin euskeraz eitten giñuan, e?
- Hori, bai! Bai, ba!
- Kontatzen ta be euskeraz ikasi giñuan.
- Bai, esto...
- Ta gero eukitzen giñuan holako lauki bat, han erdixan holako... [...] berak batuketak [eitten han ipinitta...hor ipiñi batzuk, bestiak...] eta, bueno, [orduko ...] euskeraz horrek ikasi giñutzen.
- Bai, errezuak eta... Bai, horrek erakutsi zoskun euskeraz.
- Bai, horrek bai. Baiña gero ya dotriña be erderaz, [...]
- ... dan, dan dana erderaz [ibili giñan ta...] Gure aurreratxuaokuak edo zerauak eukiko zebe euskeraz, baiña guk ez, e? Dan, dan, dan, dana erderaz.
- Gure amak-eta dotriña euskeraz.
- Bai. Horixe!
- Eta harek euskeraz-ta oso ondo [berba] eitten zeban! Guk baiño hobeto!
- Onbre!
- Askoz hobeto, e?
- Bueno, euskeraz zela...
- Harek ohittu zien euskeraz irakurtzen, e!
- Guri gero kontatzen be ahaztu ein jakun, e? [Porke, klaro, sei urtera arte euskeraz]. Eta geure kasetan, ni akordatzen naiz, [Ana Mari...] ta bixok geure kasetan "beinga ta beinga ta beinga" jardutzen giñuala euskeraz.
- Nere amak, behintzat, ondio euskeraz... numeruak [hari] erderaz esan bihar jako.

9. `Belenen sortu zaigu Jainkoa´, gabon-kanta

- **Erref:** ANT-018/023
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Gabon katak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>`Belenen sortu zaigu Jainkoa´, gabon-kanta.</p>

Transkripzioa

Belenen sortu zaigu jainkoa
arratseko gau erdian.
Hotzez dardaraz dago gaixoa
lasto piskaren gaiñean.
bero ahalez bero dezagun
apa emanez musuan.

10. Francoren garaian ikasitako abestia

- **Erref:** ANT-018/024
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Francoren garaian ikasitako abestia.</p>

Transkripzioa

Dime si queréis venir,
vamos a la batalla.
Vamos a defender
a nuestra querida España.
Fuera, fuera, protestantes,
fuera de nuestra nación
que queremos ser amantes
de la santa tradición.
Viva dios, que nunca muere,
y su santa religión
y vivan las profesoras
que nos dan la educación.

Viva dios, viva dios.

11. Olinos kondearen erromantzea

- **Erref:** ANT-018/030
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Olinos kondearen inguruko gaztelerazko erromantzea abesten dute.</p>

Transkripzioa

Madrugaba el conde Olinos,
mañanita de San Juan,
agarrado a su caballo,
a las orillas del mar. (bis)

Mientras el caballo bebe
canta un hermoso cantar
Las aves que van volando
se paraban a escuchar.

Bebe, mi caballo, bebe,
Dios te me libre del mal:
de los vientos, de la tierra
y de las furias del mar.

Desde las torres más altas
la reina le oyó cantar:
"Mira, hija, cómo canta
la sirenita del mar".

"No es la sirenita, madre,
esta tiene otro cantar.
Es la voz de conde Olinos
que [por mis amores va]".

"Si es la voz de conde Olinos
yo le mandaré matar,
que para casar contigo
necesita sangre real".

"No le mande matar, madre,
No le mande usted matar,
que si a conde Olinos mata
a mí la muerte me da".

Guardias mandaba la reina
a conde Olinos matar
que le maten a lanzadas,
que echen su cuerpo a la mar.

La infantina, con gran pena,
no cesaba de llorar.
El murió a la medianoche
y ella a los gallos cantar.

- Luzia, e?
- Romanzia. Bai.

12. Mutilek gabonetan kantatzen zuten kopia

• **Erref:** ANT-018/039

- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:44:35. **Bukatu:** 00:44:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Mutilek gabonetan kantatzen zuten kopla.</p>

Transkripzioa

- Hori, mutillena zala esaten gontsana:

Hogeta laugarrena degu abendua
desio genduena iritxi genduan.
Gabeko hamabiak jo duten orduan
gure salbatzaillea jaio da munduan.

- Baiña hori mutillena zan.
- Eta hori be eskian juteko zan. Eskian juteko, ez?

13. Umetan lagunartean jolasten zuten

- **Erref:** ANT-018/042
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:02:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lagunartea. Umetako jolasak. Ez zegoen gauza handirik, eta ahal zenarekin jolasten zuten. Imajinazio handia.

Transkripzioa

- Nere lagunak [ibiltziari] laga zotsenian be ya pixkat [... zialako], nik [...]
kuadrillan ta hola, mutillekin hasitta, [Maribi ta Maritxu] ta honek lehenao
zertu zien. Ta gero mutillekin pentsatzen jartzen zaranian, ya kozineketak
lagata [...]. Baiña ni akordatzan naiz...

- Ni asko. Asko ibiltzen nitzen ni.

- [...]

- Bai, ta teillak eta platerak...

- Teillak, etxian apurtzen zian ontzixak...

- Ontzixan zatixak eta hantxe. Holaxe.

- Ta koziñia [... zanian], ha zan ya "una cosa grande".

- Bai horixe! Bueno, ez zeuan oingo...

- [...]-eta be, zerak, kartoizkuak. Alfonbrak kartoizkuak.

- [...] Kandela batzuk izeten zien [...]

- [...]

- Imajinaziñua kreatzen giñuan hortara!

- [...] "Galletas [Oliver]" izaten zian ta holako orri batzuk etortzen zian;
harek "galletas [Oliver]", aparte ipinita, holan, teilla haundi baten gailletak
mustrarako ta...

- Bai, bai, bai. Ta gero guk [hemen ibiltzen giñun] muñekak, horrek, rekortiak, ez dakizu?

- A! Bai!

- Harek jantzi ta...

- Rekortabliak.

- Bai, rekortable horrek. Bueno, guk udan bazkalostian, [San Juan...] haretxen azpira jun, hartu harek, denpora guztian koziñeketan. Guk zenbat koziñeketa ein giñuan...!

- Guk be asko.

- Eta gero baitta gustatzen jakun, honek, txistiak be, "de hadas", ezta? Ai! Biziauta!

- A, bai! Biziu! Biziu!

- "Cuentos de hadas"...

- Bai, hola, rebista batzuk izeten zien "de hadas" ta dibujua, dana dibujauta ta. Ba, oin komik edo hortaiko... ez dakit, "de hadas"... Harek asko gustatzen jakun. Eta ez zeuan...

- Bai, orduan be ahal zana.

- Ahal zana. Bai. Ez zeuan ostiantzian...

- [...] Peter Pan-en ipuiña [...]. Ni akordatzan naiz, hori liburuori erregalau zostenian, ba, leitzen hasi nitzanian ya, ya katalogau neban negar eitteko liburua ta [gero] negar eraitten zoztan eta beti negar eitteko liburua baztarren baten ezkutauta.

14. Mutilen jolasak

- **Erref:** ANT-018/043
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txirringeletan jolasean. Mutilen jolasak.

Transkripzioa

- Ta gu baiño zahartxuauak esaten zezen [txirring...] ta Udalatik bueltia eitten zebela aintxintxika.

- Txirringeletia zer zan?

- Osea...

- Txirringeletia zan, ba, aro...

- Aro hori burdiñiakin eruaten zeban...

- Bai. Burdiña hartu ta gu baiño zahartxuauak esaten zezen erak zeretik bueltia eitten zebela, Udalatik bueltia, aintxintxika.

- Udalatik bueltia, e?

- Bai. Agapito ta Anixeto ta beste...

- [...] Barriola] ta horrek... [...] gizona ta horrek Udalatik bueltia. Anjeliton anaia Felix; haura gaztetxuaua izango zan, baiña horrek asko ibili zian txirringelan.

- Ta hor ze eitten ziñuen, konpetiziñuak edo, aber zeñek iraun gehixao jausi barik edo...?

- Hori? Ez, ez, ez. Ke ba! Hori beste [...]...

- Bestela...

- Zuk zeukozun esku artian gauza bat ta disfrutau eitten ziñuan harekin. Gaiñera, txirringeletak, nola aukerarik ez zeuan, ba, batzuk inkluso

zeuzken barilla bat; barilla, ba, hamabi bat milimetro [lodiko] diametroko barillia, haura ez dakit nola eukiko zeban, soldiauta edo zela eukitzen zeban... Ba, haura zan [...].

- Beste batzuk, barriz, txapazko barrikia...

- Barrikiari kenduta haura! Baiña horrek oso zatarrak zittuan.

- Harekin be bai. Ni akordatzan nok, lñazio [Ramirezek] bat euki juan, hortaiko txirringeleta bat ta harek [heredauta] jeukan, bati ez jakixat zenbat denporarako, denpora bat igual pasatzen zanian, -- urtiak zittuan, e?-- gero beste bati, gero beste bati ta ni ez jakixat zazpigarrena edo zortzigarrena zer nitzan tokatzen jatana haura txirringeleta haura eukitzia. Baiña orduan zenbat urte eukiko [najittuan], ba, nik? [Mutiko] txiki-txikixak. Baiña urtetik urtera edo, e?

- Gero, txirringeletak egongo zittuan, hola, [makillarik] gabe.

- Bai, ta arin-ariñak! Harek eittekuak edo saltzen zittuen, ez? Harek [...] enpalme bat eta eukitzen juen...

- Bai.

- Harek ya saldu eitten zittuen...

- Bai.

- Bestiak edo bakoitzak einda edo [...] edo...

- Honek esaten dabena, aber zelako desastria zan hori, zera... Barrikak eukitzen dittu, ba, uhelak esaten jako, barrikak estutzeko. Egurra da barrikia ta harek estutzeko...

- Harek...

- Ez, baiña egurrezkuana ez, e?

- Burdiñezkuana?

- Burdiñezkuana.

- Burdiñezkuana? Bai, e?

- Bai, harek dira, [berdiña] eukitzen juan ta gaiñera aintxintxinka eitteko ona, astun samarra, ta behin belozidadia hartu ezkerro, ba... Bai, aguro ibiltzeko bidia.

- Guk behintzat pentsatzen giñuan harekin gehixao korritzen giñula haura barik baiño.

- [...]

15. Mutilen jolasask

- **Erref:** ANT-018/044
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Kutxiloka.</p>

Transkripzioa

- Gero, beste bat kutxiloka izeten zan.

- Kutxillua jaurtitzera?

- Kutxillua... Bai. Lurrian, hartu ta lehenengo hasten zan, mangutik heldu ta sartzen, txandauz. Gero, hola ipiñi zabalik eta hola sartzen. Gero, hurrengo, [surretik] be bai, gero burutik. Gero ez dakit zela akabatzen zan; behintzet galtzen geratzen zanak, makilatxo bat eitten zan ta lurrian sartzen zan ta beste danak haura kutxilluakin jo ta azkenian, lurrian

ezkutatzen ebenian sartzen zan haura. Ta gero galtzailliak haura hortzekin etara bihar.

- Ahuakin etara... Bai.
- Hortzekin etara. Zopa-jatia.
- Eta zenbat golpe emoten zian?
- Zenbat lagun zian, bakoitzak bat. Bat.
- A! Bakoitzak...
- Danak ez zebe azertauko. Azertatzen zebanak [...].
- [Batzutan] zihero ezkutauta igual lurrian geratzen zan ta han hortzekin...
- Hortzekin...
- Zopa-jatia...
- Zopa-jatia uste dot esaten jakola horri.
- "A cuchillos"? edo kutxilloka, ez?
- Kutxilloka.
- Kutxilloka.

16. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-018/045
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Saltoka (bata makurtu eta lagunak salto). Lehendabizi salto egiten zuena makurtu eta besteak egiten zion salto. Kate baten antzera.

Transkripzioa

- Gero, orduen, baitta zerien be, kalien igual behetik gora illaran jarri danok eta primera saltoka, alkarri saltoka.
- A! Hola, makurtuta?
- Hola, makurtu...
- Igual batzuk, holaxe, zutik-zutik jarri ta daneri salto eiñez, gero norbera [jarritzez]...
- Ta izena primera saltoka esaten gendun.
- A primeras?
- Primera saltoka.
- Primera saltoka.
- Primera saltoka. Zeatik zan hori? Ez dakat idearik be...
- Lehenengo salto eitten zebana han aurrian jartzen [zalako]. Beti salto [...]
- Segi eitten zeban, segi [...].
- Oseake, igual hasten zan behetik eta...
- Ez, ez, ez.
- Edo lehenen...
- [...] Lau lagun dia, ezta? Ba, hori jartzen da lehenengo, beste danak salto eitten [jaue] hari, baiña, klaro, nik lehenengo salto ein dot ta ni geratzen naiz han. Honek itxoitzen dau beste bixak salto ein arte. Laugarrenak [...] hirugarrena salto ein dabenian, berau hasten zan "taka-taka-taka" pasatzen ta katae bat. Saltau ta ipiñi, saltau ta ipiñi, katae bat. Bueno, ordurako dibersiño interesantia [...], eztok?
- Bueno, oso politta. [Gustau hori...]
- Ginasia [...].
- [...]

- Ta honek esaten dabena, ba, lehelengo makurtuta bai, baiña azkenian, ba, gainbehera baldin bazan, ba, hauxe buruau piskat zertu hamen asientua lepuan eskuak ipintzeko ta goittik behera... Haura behetik gora nekezaua zan haura pasatzia...
- [...] makurtuta [...]
- [...]
- Haura muturreko ona hartzeko modukua.
- [...zabitzenian apurua] zertzen baldin badozu, ba... Bai, bai. Mutikotan danerakuak.
- Bai, mutikuak, [gaiñera], beti mutiko.

17. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-018/046
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Txorro-morroka.

Transkripzioa

- Gero, beste bat antzekua zan txorro-morroka.
- A! Txorro-morro. Bai. Hortan neu be ibilita nao. Ze zan, dana kuadrillia ipiñi baten...
- Bai. Bi ekipo [...]
- Bi ekipo.
- Eta gaiñera salto ein.
- Salto ein ta laga holan pusketa bat [...bezela], haura zela [behia jo...] bou!
- Haren [gaindik] hiru bat-lau, haren parian, [jausten gaiñian].
- [Horrek ze ein...], jo-ta [...]?
 - Gero bihetza.
 - Han aurrekuak azertau ein bihar ze bihetz emoten [jaon].
 - Batzuk salto haundixa ta...
 - Bai, salto. Pentsaik, ba, [bat] gaiñian zeuanak haren gaiñian ipini eskuak eta aurrera juaten zuan ta! Hori...
 - Bai, ahal baldin bazan aurreraño...
 - Hiru bat edo, ez dok?
 - E?
 - Hiru bat edo...
 - Lagunak?
 - Bai.
 - Lagunak gehixao.
 - Bai, e?
 - Ni akordatzan nok eskolan...
 - Batzutan gehixao.
 - ... kalefaziñorik-eta ez zeuan, behian zera [...]
 - ...[lau lagunek], hola, lurrian ta lau salto eitten.
 - Bai, e?
 - Bai, bai, bai.
 - Eskolan ametitzen zoskuen, [nik hori goguan jaukat], eskolan bertan, handikaldeko pizarra aldien nola ibiltzen giñan. Ta izengo zuan, ba,

errekreora kanpora ertetzeko girorik ez zuan igual izengo ta...
 - Orduan ez zeuan kalefaziñorik eta han eskuak berotzeko... urten ta pasilluan hola igual. Zeoze dibujua edo eskribitzeko ezin eskribidu ta...
 - Bai, bihetz-muturrak zurittuta ta... odola pixket...
 - [...] Txorro zer zuan? Txorro, morro, piko, kallo, ke. Eta batzuk [...], eztok?
 - Bai ba! [...] Komeni zuan zapalduta edo mehetuta edo...engaiñatzia komeni zuan! Engaiñatzia!
 - Bai, ahal danik fiñen... Bai, eta behekuak jausten bazian, atzera buelta.
 - Baitta. Fuera, berriz. Ta azertatzen ez bazeban be bai.
 - Azertatzen ez bazeban be bai.
 - Ta, orduan, horreaittik izeten zan, ba, atzetik baten batek bihetz raron bat baldin bazeukan, ba haura zela-hala tiratu ta haura emon. Txikixa, txikixa lodittu, engaiñau daixen. Ta bestiak mehetu edo puntia emon edo...

18. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-018/047
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Kalderonka. Garizuman egiten zen jolasa. Pote-poteka zelan egiten zen. Marroka.

Transkripzioa

- Galderonka ta eitten ziñuen zuek?
 - Bai.
 - Baitta, galderonka be bai. Hori garizuman.
 - Garizuman.
 - Garizuman kalderonka.
 - Ta pote-poteka be bai.
 - Pote-poteka be bai. Haura be hor udazken aldera-edo ez zuan izaten, garizuma inguruan edo... pote-poteka.
 - [...]
 - Ta marroka be bai.
 - Bai.
 - Pote-poteka ze eitten ziñuen, potiari ostikadia jo edo gorde?
 - Ez, bota eitten zan.
 - Bota eitten zan?
 - [...zan]. Han lagatzen zan potia, haura batek hartu ta urriñera botatzen zeban.
 - Eskuakin bota.
 - Eskuakin urriñera bota. Haura billa, bat, etortzen zanian billa, haren billa, beste danak gorde eitten zien. Ta gero billau ein bihar.
 - A! Ta potia bota zebanak billau ein bihar zittuan gero bestiak?
 - Bai, billau ein bihar zittuan.
 - Kontau eitten zuan, eztok? Hamar arte edo... edo ez zuan kontatzen?
 - Ez, potia zenbateraiño botatzen zan.
 - Potia noraiño botatzen zan.
 - [Zirkulora] ekarri. Hemendik bota harutz, hona etorri ta gero haura hasten zuan billa. Nun gorde... gorde eitten zuan bittartian [...]. Eta billa, beste

baten billa dabillen bittartian beste batek jun ta bota ezker ostikuaz pote haura, atzera berriz [...].
- Zapoka bezela, antzera.

19. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-018/048
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Pelotan jolasten zutenen artean diferentzia handia zegoenean, edo desafio moduan baita, hankapetik jolasten zuen batek. Fueraka.

Transkripzioa

- Bueno, nik hamen beste bat, ba, oin aspaldian entzuten ez dana behintzat, ba, pelotan, hankapez. Osea, pelotan, diferentzia haundixa zeuanian bateandik bestera, ba, batek igual hankape jokatzen zeban. Ta hankape hori zan hemendik; hankia jaso ta...

- A! Hankia jaso ta...

- Eskua hanka horren azpittik jo bihar ziñuan.

- Golpe bakoitzian?

- Bai, bai, golpe bakoitzian. Baiña hori, klaro, izeten zan diferentzia haundixa zeuanian pelotari batetik bestera edo igual izeten zan desafixua bixak hankapetik. Batak albidade espeziala baldin bazeukan eta bestela bestia gehixao baldin bazan, ba, bueno, hola probatzen zan. Hori bazeuan behintzat...

- Hankapen, ez?

- Baitta batzuk eskuak lotuta be bai.

- Bai, hori be bai.

- Diferenzia haundixa zeuanian, bi normal igual ta beste bi eskuak lotuta. Goma batekin lotu ta bixak alde batera, bestera bixak batera ibili bihar.

- Ta gero pelotan nik hamen illaran apuntau dauzkat, ba, fueraka beste bat. Oin zela esaten jotsek oin?

- [Atxiketan] esaten jakuan horri.

- Ez, ez, [atxiketan] aparte zuan, dirua jokatzen zuan, hori aparte zuan. Oin barruka esaten jotsek. Bai. "Barru" esaten juek oin.

- Iguala da, [atxiketan] segi eitten zuan. Hik tantua galtzen [bahuan], pagau ta...

- Hori bai.

- ... barruan geratzen hintzan.

- Gu, behintzat, [atxiketa zaliak]...

- Fueraka zuan, galtzen zebanak...

- Bai, danak akabau arte, danak kanpora erten arte...

- Ondio Elusun ta be eitten juek ondio hori.

- Bai, oin barruka esaten jotsek, barruka. Akabatzen danian, "barru!" ta danak juaten dittuk barrura.

- Ya, ya...

- Ta guk fueraka esaten gontsan.

- Guk fueraka esaten gontsan.

- Ta atxiketara izengo zuan antze-antzera, baiña, klaro, hik kanpora erten biharrian, ordaindu ipintzen zan zera ta...

- Erten biharrian, segi jokatzek. Ordaindu txikixa; tanto galtzen zebanak eitten zebanari txakur txikixa.

20. Urte-sasoiaren arabera jolas desberdinak

- **Erref:** ANT-018/049
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Umetako jolasak. Tronpetan egiten zuten. Urte-sasoiaren arabera jolas desberdinak. Tronpekin zelan jolasten zuten.

Transkripzioa

- Tronpak, tronpetan. Hor...
- Tronpekin?
- Bai. Ez dakit ze epoka izeten zan. Eske honek gauza honek ertetzen zeben automatiko.
- Baiña egoten zian sasoe batzuk; por ejemplo, galderonka garizuman, eta bere epokia eukitzen zeben, ez?
- Nik ez dakit zenek, oin zera esaten jakok, propagandian bidez ta ipintzen juek jentia, eztok, hartan ta bestian. Ta orduan automatikamente hasten zan. Ez dakit nik...
- Garizuman zera eitten zan...
- Kalderonka eitten zan.
- Kalderonka.
- Ta tronpetan noiz izeten zuan, ba? Zeatik, epoka bat izeten zuan ta gero atzera urte guztian ez giñuztan ibiliko. Hori bai, [...an], han egongo zian eskapatian ipinita, e?
- [...] Eloan aittak berak ein be bai.
- Eloan aittak? Berak [...]
- Ein berak, e?
- Harek hobiak. [...]
- Harek "de artesanía".
- Eta zela eitten ziñuen, hola, korruan ipiñi ta batek bota ta bestiak haura etaratzera edo...?
- Bueno, bai.
- Hori bai.
- Desafixoka. Holan ipinita, holan izeten zan, bai. Han [ipintzen zienak] tronpa txarrauk izeten zittuen, ez? Harek gero jo ta etaratzeko [...]. Ta gero harek, hola, "como trofeo" eukitzen zittuen.
- Lehelengo han, zera, jokua hasiko zan, ikusteko behintzat, zirkulo bat-edo ein, ba, metro erdikua edo, hasi danak txandan botatzen, baiña, klaro, puntiak han jo bihar zeban. Bota, puntiak han jo, zirkulu horren barruan, eta gero zera, azkenengo zerari zela esaten jakuan? Jaustera juaten zan haura? Izen bat baeukan harek...
- Haura [zirkulotik kanpo...]
- Erten egin bihar zan. Haura "tirrii" fallau ta bertan geratzen baldin bazan, han preso ya han geratzen zan. Gero, botatzerakuan, haura barruan jote ez baziñuan, ta gero harek laga ta gero harek etaratzen ibiltzen zan.
- Bai, ibili biharko zan [...urtetzen zanian salidia]...

- Salidia? Salidia izengo zan?
- Bai.
- Salidia igual izengo zuan [...].
- Salida haura [...]
- Segun zelako tripia [zeukan gero...]
- Joe, [Tolosakuak] onak izaten zittuan hortarako. Gero astunak be bai, ta...
- Harek torno txikin bat eukiko juan hor...

21. Gorpuzti eguneko jolasak

- **Erref:** ANT-018/050
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gorpuzti egunean, "ixakin" jolasten zuten.

Transkripzioa

- Bueno, gero hau... Neri beste batzuk akordau erain zosten, baiña Gorputz egunian, ixekin zerak... Hori akordatzen naiz, [...] nola eitten giñuan, bedarra batu lehelengo eta han, ez dakit nik, bat sartzen zan, behintzat, han azpizan ta bestiak ezkutuan. Ta gero, klaro, kuadrillan antz emon bihar zein zan. Honek, Jose Luisek-eta jardun osten esaten, erok, behintzat, zerian, Gorputz egunian, ixakin pillak ein ta hori joku zera izaten zala. Oso...
- Horrek zuen andriak. Esan zosten hori, ixekin. Nik zer zanik be ez nekixen ixak.
- [...]ko] plazan hori, eztok? Hori...
- Plazan ta edozein lekutan!
- Bueno, batu eitten juen. Prozesiñoko zerian...
- [...]
- Harekin jolasa, desdeluego, egun horretan nik goguan daukatena dok, jeneralian, jantzi zurixa-eta, zapatillak be zurixak, harek dana berde-berde einda etxera jutun ziala. Dibersiñua. Aukera ona izaten zuan, ba, saltoka ta haren gaiñian ibiltzeko.

22. Baserriko jolas ezagun bat

- **Erref:** ANT-018/051
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Kukurrukuka. Baserrian, gurdiaekin egiten zen jolasa. Bat partikaren puntan jartzen zen eta atzeko ezpatan jarrita zegoenak gora eta behera erabiltzen zuen. Jolas honek kanta bat ere izaten zuen.</p>

Transkripzioa

- Bueno, gero beste hau ez dakit iñok kontau dotsun: kukurrukua. [... be] akordatzen dala esaten jok. Kaletarrak ez jakixat; hori, basarrixan, burdixa... Burdixak badakik nola partikia eukitzen daben, eztok? Eta gero, bi ezpata eukitzen dittu: aurrekua eta atzekua. Burdi korrientia, e? Orduan, atzeko ezpatan jarri gu, mutikuok, mutiko kuadrilla bat, desnibela zertzeko moduan, ta mutiko bat jarri partika puntan. Partika puntan harek... uhela [hola... eukitzen zeban], lerakua bezela. Heldu hari ta jarri han, ta salto ein gora --bestian impulsuakin gora jasotzen juan--, ta kantua hortara izeten zuan. Lehenenguan: "Kukurruku", han puntan zeuanak, partika puntan zeuanak, eztok? Ta bestiak, atzeko danak, kantatzen juen: "ze bihozu?". Ta atzera berriz gora eiñaz, "Olatia". "Zenendako?", atzekuak. Ta gero bestiak: "Abadiandako". "Abadia zetako?", "Mezia emoteko", " Mezia zetako?", "Zerura juateko!" "Zerua zetako", ta "Pastelak eta gozua jateko!". Oso... Ta nik ahaztuta neukan hori. Hi be akordatzen haiz, eztok?

- Bai, bai.

- [...]

- Bueno, han dibertitzan giñan gu. Joe, ba, dibertidu, baiña ondo, e! Klaro, pasatzen dana, kuadrilla dezentia bihar zan, burdixa libre ta...

- Bai, ta gero atzian kuadrilla haundixa jartzen baldin bazan, ta haura ihartu [samarrekoren bat jasotzen] baldin bazan, goittik behera komerixia [ederki].

- Saltua. Bai.

- Behin [...] joten bazeban goixa, goixan joten zeban saltuakin goittik behera.

- Bai, ta iñoiz jarein be bai hazaña eittiarren atzekuak. [...]. Lehenagoko Lapatza zaharrana ez dakik? [Akelaneko] aurrian emon zerari, bolketiari, ta... [Akelaneko] aurrian, Tellerianeko inguruan edo gorago, bolketiari emon Urretxutik, ferixatik, jentia dakarrela, ta "rrast!" --beti holakua izen bihar, ba, semian [...] antzekua edo-- ta "rrast!" ta basarritar danak [...] atzaparketan] azkenian.

23. Intxaurrekin egiten ziren jolasak

- **Erref:** ANT-018/052
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Intxaurrekin egiten ziren jolasak: Potxo-potxoka; kontra-kontralari... Zelan jolasten zuten.

Transkripzioa

- Bueno, beste bat, ba, intxaurrena. Hori, ba... bere garaia jakiñekua da. Potxo-potxoka bat behintzat.

- Kontra-kontralari be bai.

- Hori dok. Kontra-kontralari [...]. Kontra-kontralari... Bueno, potxu-potxuka izeten zan, potxua beti esaten jakon... Horrek, jeneralian, eindda egoten zien. Elizpian be mordua zian, oso polittak geiñera! Ta hara bota, ta gero, botatzen ez zebanak, lehelengo sartzen ez zanak, ba, bihetzakin zertu ta...

- Oin, ona zana zuan "madria". "Madria" zuan...

- Sakia eitten ez zebana.

- Intxaur potolo hauek. Potoluena edo senduena edo...

- Motelena edo... Ez dakit.

- Ez, ez. Harek zeoze zeukan edo barruan...

- Beran klasia edo zeukan mamiñagatik edo...

- Edo bestela, salto [eitten...]

- ...holan, goittik behera jarein ta "plak". Haura "madria".

- Haura kasta fiñekua.

- [...]

- Apurtzen errezaua [...]

- Baiña [...] madria [...], enkanbio, horrek beste horrek saltariñauak. [...]

- Honek biribillauak edo zittuan "madre" hauek.

- E?

- Biribillauak edo zirala, eztok?

- Honek esan dabena, haunditxuauak izaten zian, behintzat.

- "Madriak"... Bai, eske neri esan zosten, bueno, potxo-potxoka ez, krinketian edo, hola, ipini intxaurrak illeran...

- Bai, bai, bai.

- ... ta gero madriekin...

- [...]

- Bai, madria... "tartakañua" esaten zotsen beste... Batzuk "tartakañua"...

- "Tartakañua", bai, saltariña.

- ... eta "madria". Eta madriekin jotera...

- Ba, madria zan, ba, bat pelotia balitz bezela ta bestia burdiña balitz bezela. Haura ez zan apurtzen. Haura bueltaka juaten zan geldi-geldi, lurren rasia. Ta horrek eukitzen zeban inportanzia haundia. Ta kontra-kontralarika, berriz, ba, hemen agertzen zian bihurrixenak ta iñundik [...] ez zian apurtzen. Ta gero...

- [...]

- ... behintzat [...] intxaur [espezialekin zeozar]. Ta gero jokua eitten zan, ta klaro, nik uste dot neuria ona neukala, ustez, neuria. Ta beste batekin, apurtzen zanak bestia jan eitten zeban. Ta gero, nahi zebanak jokatu harekin... [ta beti] egoten zian.

- Gogorrena zeukanak [bestia...]

- Esku-bittartian hartu bi intxaur: bat zuria ta bestia neria. Hartu hola eta "tak!", bat apurtzen zan, makalena apurtzen zan. Haura zuria baldin bazan, nik haura jan ta nahi zebanak...Besten bat baldin badaukazu edo besten batek baldin badauka, "Benga, ekarri hona!". Ta hurrenguan neria apurtuko zan. Orduan harendako. Hola irauten zeban. Baiña batzuk zian --ba, nik ez dakit-- zimel-zimelak, ze eukitzen zan... Normalmente txikixa, e! Txiki samarra. Baiña klasiak zeren: "madria" lehen esan douna, hori zeuan beste klase bat azal gogorrekua, itxuria. Bai. Azal gogorrekua ta eukiko juan bere egitura eukiko juan ta...

- Hortan basarritarrak gehixao zittuan, eztok?

- Bueno, basarritarrak aukeria eukitzen juen.

- Aukeria. Intxaurrak...

- [...]

- Bai, mutikuak haura apurtzeko... Bueno, [mutil...] apurtu ezin bazan, gero...

- Ta segun ze posizioan hartzen [zan be bai]...

- Hori ya...

- Bai, baiña harek e...

- Hor trukua [...] bata parte debillan ta norberana gogorrakin ipini ta horrek...

- Bai, baiña prohibiduta jeuan unixua ipintzia. Unixua ezin jeikian ipini, e! Bizkarra bihar juan.

- Ez, ez, bizkarra. Baiña...
- Bai, bestia albora begira bazeon ba...

24. Kantoeka zelan jolasten zuten

- **Erref:** ANT-018/053
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Kantoeka. Jolasa oso ondo azaltzen dute.

Transkripzioa

- Kantoeka. Hori [... esan jostanan]. Jarri illaran dozenerdi bat lagun, batek bota pelotia, jo eskuakin...
- Jo ta gero aidian hartu bihar hori. Grupoka. Eitten dozu grupo bat illaran danak jartzen zianak eta beste [...]-
- Hori eskolan.
- Eskola patixuan asko! Oso dibersiño...
- Gero [...]
- Ba, [ein deigun kontu] rektangulo bat-edo dala, ezta? Rektangulo bat edo kuadrara igual. [Kuardro] baten, alde baten jartzen zian, ba, zortzi-zortziri edo sei-seiri edo, sei mutiko han. Ta hemen beste sei mutiko. Pelota putzezkoa jeneralian. Batek... jartzen zan, hola, pare bat metrora edo, ta lehelengo, sei haretako lehelengo zeuanai botatzen otsan pelotia eskura. Ta ondo bota bihar otsan, e? Joten zeban eskuakin ta jaurtitzen zeban. Beste bost horrek, han zaintzen [eren] kontrarixo bost horrek aidian hartu ezindako lekura. Ta bittarte horretan, egoten ziran markauta sei bat kantoe --kantoia esaten zan--, sei bat punto ta antxintxika "taka-taka-taka" punto haretatik. Ta puntuan geratu ein zeikian, baiña bestiak eskuakin hartu ta jotzen baziñutzen, ba, ya talde harek galdu eitten zeban. Punto batetik bestera pasatzen jotzen baziñutzen, ya talde harek galdu eitten zeban. Orduan, aldatu eitten zan: talde haura jartzen zan illaran, irabaztaille bezela, ta bestia hartzaille bezela. Kantoeka esaten jakon horri, kantoeka.
- Eta puntu danak ikutu ezkie eta, ba... gero ze zan?
- E?
- Puntu danak ikutu eta bere lekura pasau ezker, segi eitten zan, ez?
- [...]
- E?
- Beisball-an estilora edo...
- Beisball edo bai... Hortaiko zer batekin jo ta hola botatzen [...]
- Bai. Beisball edo ez tok hori?
- Bai, beisball.
- Holako zeoze antzerakua, bai, behintzat.
- Harek be, behintzat, jotzen dabenian, aintxintxika hasten dittuk eskiña batetik bestera.
- Bai, horren antzerakua da. Ba, hortik igual etorriko dok hori! Baiña, klaro, guk erreminttarik nola ez geunkan, ta lekuri be ez, ba eskuakin. Ta gu ondo dibertitzen giñan.
- Maristan batek igual...
- Larri ibili!
- Bai, bai, hori maristan batek erakutsi [...].
- Bai, baleike.

25. Gerra ostean ezaguna egin zen jolasa

- **Erref:** ANT-018/054
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gerra osteko jolas bat. Helburua, pilotarekin kontrako taldekoa jotzea.

Transkripzioa

- [... paria]. Hau ez dakigu zan gerrian konzekuenzia edo zer, guk, behintzat, guretako jolas nazionala bezela zan hori zerian, eskolan. Eta zan, hor be bi talde jarri. Bi talde, ba, gerria, e? Guk inkluso [ipini...] --ta hori danok ezautuko ziñuen-- [Anbun] batalloia esaten jakon. Anbu hori zan Joxe Migel. Ta nik ez dakit nundik etara zan, berak etara zeban batalloia. Bera batalloian, ta zeuzkan kuadrilla bat... [ez kuadrilla, onenena ta be ez], bat zeukan oso ona, ta zan bere lehengusua, San Pioneko Joxe, Joxe ["Arin"] esaten gontsan. Orduan, izeten zan, pelota batekin, pelotia bastante min emoten zebana ondo jo ezker. Ta batez be honek, Joxe ["Arin"]; zan ume desarrollaua. Desarrollaua [izango zan biharabada], baiña indar bat, hola, "fuera en serie" zeukana. Ta harek hartzen... Jo be ez dakit sekula iñor jo zeban... Bai, batenbaten bai, eztok? Zera jo jua... Bai, bai, bai. Anekdotia zerana dok... [Alusko] Florentino. Harek, berriz, eitten zeban, hola, salto eitten zeban eta zapua bezela geratzen zan. Ta oso zailla izeten zan. Klaro, beti mobimentuan nola [zan], salto [...] goittik bera ez dozu harrapatzen. Baiña baten jo zeban zerian, ipurgaiñian, ta uste dot teillaturaiño jua zala.

- Pelotia...

- Bueno, taillatura ez zan jua, baiña taillatuperaiño, e! Horrek orman jotzen zebanian, paretan jotzen zebanian, emoten zeban bonbia [... zala]: "buuu!". Baiña horrek zeukan beste umien aldian, ba, nik ez dakit ze belozidade [erungo zeban harek]!

- [...]

- Eta ze zan pelotia...

- Gerria. Zan gerria. Pelotia hartu ta kontrarixua hil. Gertuan baldin bazeuan, urrin baldin bazeuan, ba, onduena gertuan zeuanari.

- Jotia...

- Hari ahal dan haundixena emotia.

- Eta hartzen zebanak bota [ein bihar zeban]?

- Bota. Hartzen zebanak hartu ta bota. Ta gu, ba, klaro, hamar lagun alde batetik ta hamar bestetik. Baiña horrek ez dakit ze afan hartu zebe, [Anbun] batalloi horrek, ba, horrek beti ziran hamabin bat edo zortzi edo nik ez dakit zenbat izango zian, beste danen kontra. Baiña klaro, han zeuan Joxe hori, ta horrekin... joe! Jende guztia... hareandik urrin, behintzat! Oin, zorionez horixe zeuan, sekula ez zeban azertatzen.

- Kontuz horrekin, kortxua dauka barruan. Lardio bat egin dot neuk...

- Ta hori, nik uste dot, joku hori, ba...

- Kontuz, e! Beittu neri ze pasau jaten eta.

- ... gerrian ondorengo zera izengo zala. Hola, burruka bezelako zera zan, behintzat.

26. Hanka-topeka

- **Erref:** ANT-018/055
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Hanka-topeka.

Transkripzioa

- Hau, beste bat... zuek ez [jakixat...], lehen Enrikeri jardun jotsat esaten: hanka-topeka. Parejatan izeten zan. Hankia jaso eta zenek bestiari golpe haundixaua emon. Nik hau, goguan geratu jatan...
- Neri be, esan dozunian, goguan [...]
- Bai. Goguan, zeatik honek, eskolatik ertenda, guk baiño haundixauak zittuan Valentin ta, [zeran epokakua, ...neko] Antonio [basarrixan] ezkondata dao ba? Horrekin. Hortxe, oin [polleruaneko] ta zerori dagon lekuan badakizue nola zeuan zer bat, istura bat jeuan ta gero ortuak jeestan. Hasi Udalakuak eta mordua, erreka bittartian, mordua jeestan. Hor jeuan istura bat, ta istura horrek, itxuria, arantzadunak-eta jaukan isturia. Kustiñua, behintzat, honek, Valentiñek, jo ta golpe dezentia emon edo "lo que sea", ekilibriua galdu edo, hara jausi, behintzat. Han sekulako ebaixa ein juan betonduan. Ta harekin zelako folloiak-eta euki zittuen ta horixe goguan jaukat. Ta hori, guk geuk, ez jakixat, asko ez giñuan biharbada praktikauko hori.
- [...] ikusi gehixao.
- E?
- Ikusi gehixao.
- Zaharrauk eingo juen ta... Bai. Hanka-topeka. O sea, adarixak balira, baiña hanka batekin. Ez dakit nik, bakutxak berak abilidada gehixao zeukan... ezkerra edo eskumia, abilidada gehixao zeukan hankia.
- Ta hankiakin jotzen zan?
- Bai, bai, bai. "Tak!" Hartu ta... Inddarra hartu "o lo que sea!" ta... Hanka azpixon, e! Hanka azpixon ipini zerian, parian, ta hola, eskuakin joko balitz bezela.
- Ginasia be bastante [bihar].
- Bai, bai. Joe... Hanka baten eta hola...
- Bai. Alturan-ta, jeneralian, berdiñak izengo zittuan bixak, baiña, ba, hankia zera ipini heuk, bertikal ipini bihar.
- Horreatik, ba...

27. Mutilen jolasak

- **Erref:** ANT-018/056
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Umetako jolasak. Harrika; tira-gomarekin; ondarekin; boletan. Bolatokiak sekulako harrera ona izan zuen.

Transkripzioa

- Bueno, gero harrika, tiragomiakin, ondiakin... Horrek...
- Horrek berrixak be badittuk, [Migel].
- E?
- Oin be...
- Bai, oin be eitten dittuk. Gero beste bat, ba, ointxe, oin ipini dan... boletan. Hori, zera, joku... Hori puskat nausitxuao ein ta gero, baiña bolatokixak sekulako azeptaziñua euki zeban hamen epoka baten. Illundu

arte egoten zan. Illundu ta be artian "Azkena" ta "Azkena"...

- [...]

- A, bai, e?

- [...]

- Eta nun zeuan, ba, bolatokixa lehen?

- Bolatokixa oso edarra [Pepetxingo] parian, honek, [Pepe txiki] parian. Ointxe hor harmaillak badare, ba? Harmailla horrek baiño puska-puskat eliza alderatxuao akabatzen zan. Baiña bolatokixa, baiña, hamen inguruen ez zeuan bezelakua, e! Dana zerakin eindda, [egur baltza]. Bolia botatzen zan lekuan, hola, enkatxaua edo zela esaten jakok horri?

- Bai, zera, losekin einddako zera atzekaldian.

- Bai, bai. Bestia? Ohola zeukan aldian, hola, enkatxaua... Ze esaten jakon horri?

- Bai, enkatxaua. Bai, harri zera...

- Harrixak [...], baiña oso elegante ipinita, e! Zan, gaiñera... bederatzi birloko zera zeuan, harlanduakin einddako kuadrau bat. Bukaeran hori, e!

- Ohola be luze-luzia...

- Ohola be ikaragarrixa, bai.

28. Lagunarteko jolasak

- **Erref:** ANT-018/057
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Bi talderen artean egiten zen jolasa.

Transkripzioa

- Hamen beste joku bat ez giñuan, [Maximo], eitten zerian, maristetan. Hola, launa edo jarri alde baten, beste launa ta batek antxitxika erten...

- [Marraketan].

- [Marraketan]? Haura oso politta izeten zuan.

- Pañeluakin?

- Ez, ez, ez. Bat bestela.

- Beste bat dok hori.

- [...]

- Grupo bat hamen jartzen zuan ta bestekaldien beste bat. Eta, orduan, hor ein bihar izeten zana zuan hamenguak ikutu bage, hamengua hona sartzia izeten zuan [hiru juego], zeatik gero hamenguak eukan bentajia atzekaldetik jun ta kontrarixo haura harrapau biher [jeben] harek. Osea, hor izeten zuan: azkenengo bere basetik urtetzen zebanak eukitzen jua preferentzia. Orduan, azkenengo urtetzen zebanak aurretikan doianai ikutu ta haura kalera bialdu leikian. Ta, orduan, hori izeten zuan, gero bat kalera bialtzen zanian, geratzen zuan bestekaldeko bandan, kontrarixuen bandan, hamen tirada bat eitten.

- Preso.

- Preso geratzen zuan, bai. Gero, presuak sumatzen juten zittuan [...]. Gero, hamenguen zera, [...], izaten zuan preso harek libratzia, harek hola illaran jarri ta harek libratzia. Ta gero, bestekaldian urten bihar... Klaro, hamenguak urtetzen zebanian, ba, beste aldekuak "da!" urten, ta haura...

- [...]

- Haura be preso harrapau edo...

- Ta gero, pasatzen zuan, ba, hamen sei edo zortzi lagun alde bakoitzian, ba, hau illaraau luzetu eitten zuan. Ta gero, horrek egoten zittuan... Betik batzuk korrikalari onak izeten zittuan ta beste batzuk, hola, txar samarrak. Ta hamen, jeneralmente, sarritan, hau illariau luzetzen zanian, ipintzen zuan bat hona urtenda, hori ez libratzeko, defenditzeko. Haren finalidadia izeten zuan deskuiduan hamenguak urtetzen zebanian, horko onai emoten ez baotsan denporaik haura harrapatzeko, hor zeuana sakrifikau eitten zuan. Nahiz harek baekixan bestia baiño lehenao urtenda zeuala, [beori...] honek ez libratzearen. Hori zer inportantia izeten zuan.

- Baiña bera karzelara.

- Hori eitten juek... Bai, haura bestekaldeko karzelara juten zuan, baiña hortarako egoten zittuan, ba, hola, korrikalari bizkor samarrak zianak ya hor [gizonori gelditzen zebenak]. Ta ya onak, ba, harek intentatzen eben beti, ba, hemenguak urtetezen zebanian, hortik urten, ta haura hona allegau orduko bestiak haren kontra urtetzia.

- Ba, hamen asko eitten giñuan hori, ez?

- Bai. [...]

- Hori deporterik gehixen [eitten giñuana]...

- Asko, asko.

- Ta ze zan...? Oin antzerakon bat eitten da.

- Bai, bai, bai, antzerakua bai.

- "Pañuelitos" hori, bai...

- Bai, baiña beste bat hola illaran ipintzera ta libratzera ta holako antzerakon bat be eitten da. Orduan, ze zan hori? Bi ekipotan. Lehenengo erten bihar zan bat erdira edo...?

- Ez, ez, ez. Bat atakera faten zan, edo engaiñatzera.

- Probokatzer.

- Probokatzer, bai.

- Lehenengo izeten zan puskat, hola, batek urten hamendik eta "rra!" bueltia ein ta puskat hola probokatzen ta bestiak... Hortara, hortara hasten zan. Ta gero, ikusten bazeban han momentu bat distraiduta zerela edo zera, ba, "ta!" beste aldera sartzia. Haura izeten zan riesgo haundixa, zeatik alde batekua beste aldian sartzen baldin bazan, harek zeukan orduan prioridadia, ba, hamendik batek urtetzen bazeban, atzekaldetik urten ta haura...

- [...] dozu.

- Hori oso zailla zan, e!

- Zailla izeten zan barrura sartzia. [Hala be], danak ekipo konpletua zerenian oso zailla izeten zan hori. Ta bihar zan oso bizkorra bat eta [...].

- Eske, ez zan heltzia, ikutu ezkerro fuera, e!

- Ikutu ezkerro ya kanpora...

- Bai, bai, ikutu ezkerro...

- Ikutu ta ya fuera.

29. Maristetan egiten zituzten jolasak

- **Erref:** ANT-018/058
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Damak. Maristetan egiten zituzten jolasak.

Transkripzioa

- Dametan. Ez jakixat oin ibiltzen dian. Zuek igual ibiliko ziñaten. E?
- Hortaiko kuadrau batekin, bederatzi punto-edo. Bueltan zerak.
- Damaka.
- Damaka, bai.
- Orduak pasatzen zian [...].
- Hiru hillaran ipintzera.
- Hori da.
- Bai, hiru hillaran...
- [...] ajedrezik eta ez giñuan [...] ikesi. Orduan baten batzuk jakin bazekixela-edo zeoze entzuten giñuan, baiña guk geuk... Damatan bai.
- Ikusi be ez igual zuek ajedreza. Orduan...
- Ez, ba! Ez jeuan materialik eta.
- ... maristan batek ez juan intentau ajedreza erakustia?
- Maristak [...].
- Hori gero, herriko eskolan, baiña. Hori herriko eskolan [ein juan]. Bai, bai, bai, bai.
- Bai, gero, gero [ibili zittuan].
- Bai, bastante onak.
- Hori, zerak eta... ya gure semiek-eta zebiltzela zan hori. [Abade] txiki bat, eskola, lehengo eskola berrixek eitterakuen, hor, [... eskolak-eta ein zittuen], ba, haura...
- Don Esteban?
- E?
- Don Esteban?
- Baleike. Harek-eta uste dot...
- Neri harek erakutsi zostan, behintzat.
- A! Zu be harekin ibili ziñan?
- Bai.
- Bai, bai. Batek zer haundixa euki zeban.
- Harek orduaintxe...
- Lehelengo maristetan ta gero eskola berrittan emon [...], orduan.
- Baiña gure denporan, gu damaka-edo zeatik ibiltzen giñuztan? Ba, bueno, harrixak hiru zerakin... Zela dok hau? Teilla kolorekuak hiru ta beste hiru harri normalak, arrastuak ein lurrian...
- "Ra-ra-ra-ra" [ein], ta beinga! [eitteko] moduan.
- Hemen, maristetan, bastante joku egoten zuan, e! Osea...
- Baiña zerik, ajedrezik ez zuan egoten. Ta, seguramente, ba, ez zittuan allegauko. Klaro, pasatzen dana da, gaur bai, gaur plastikua ta horrek, baiña orduan egurrezkuak edo izen biharko zian, ta kosta eingo zian horrek!
- [...] dado batekin.
- A! Bai. Hola, jolas eitteko zera. Bai.
- Holakuak bastante...
- Baiña hona ez zittuan aillegauko, zer hontara. Esan nahi dot, allegau, ba, diruz. Orduan kostau eingo zuan ekipo hori, e! Kostau eingo zuan. Zerana, ajedrezeko zerak eukitzia.
- [Figura haundixak zittuan ta]. Figura...
- Eskola baten ipintze ezkerro, ba, bat bakarrik be gutxi izengo da...
- [...]

30. Haurtzaroa gerra garaian

- **Erref:** ANT-018/059
- **Iraupena:** 0:06:40. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak gerra sasoian. Pelayotan. Desfileak egiten ziren hiri handiak hartzen zituzten bakoitzean. Maristak, Francoren aldekoak. Apirilaren 1ean, kanta aberkoiak abesten zituzten. Gerra osteko egoera. Umeak formatuta joan behar bezperetara, meza nagusira...

Transkripzioa

- Gero "pelaiotan"-ta, desfiletan-ta hortara ibilita gare gu gerratian.
- Pelaiotan?
- Klaro, honek pelaiuak zer dian be ez jakixek!
- Ez.
- Honek ez jakik zer dan. Formación Nacional Sindicalista edo izaten zuan?
- [...]
- Ez orduan bakarrik, e? Hori zan gerra-denporan, gerria akabau arte. Gero han ya... "Pelaiua" zan hamen gerran ibili zian, hamen nortian [...] Espaiña danian egongo zian reketiak esaten jakona. Ta horrek zian "los embriones de requetés" edo... Umiak. Umiak gero rekete eingo zianak.
- Gazterixia edo "juventud de requetés" edo...
- Bai. Baiña rama horrenak, e! Zeatik harek jantzixa be, haren iguala erabiltzen zebe: kaki jantzixa, txapel gorrixa ta beste... korreak edo zera haren igual-iguala. Ta horrek zian gero, ba, herriko edadian sartzen zien ume danak, ba, Antiguan-ta ein zerak, ensaiuak, eta...
- Egurrezko eskupetak.
- ...Bai, egurrezko fusillakin. Fusilla, fusillan modukua.
- Eta gero desfilia eitten ziñuen?
- Hori zan gerra... Bai. Ta desfilia [izeten] zan --bueno, hemen, behintzat; gero, azkenaldera, gehixao--, hamen zitude haundixak hartzen zianian, mezia-ta egoten zan, ta gero mezetara juaten zan formauta, desfilian, horrek "pelaiuak" esaten jakon horrek. Ta gero, erten ta buelta bat eitten zan kalerik kale. Hori zan, horrek gerriak iraun zeban denporan zertu zan.
- Ta hamen kornetak [egon] zittuan, baiña!
- Bai, bai, bai. Kornetak eta tanborrak! Lau korneta eta lau tanbor.
- Gero herri haundin bat hartzen zebeñian zaragixa ez zan egoten?
- Zaragixa. Zeran ostian, desfilian ostian, zaragixa aiuntamentuan.
- Zaragixa?
- Zaragi ardaua! Zaragi ardaua! Gero ardaua etara handik basotara ta haura hustu arte...
- Haura hustu arte?
- Baiña, gero, guk honek holako... Enrike ondo akordauko haiz. Maistruak zera, hor... gehixenak [bazian] kastillanuak edo. Ta horrek zian, ba, horrek Francon aldeko amorratuak zian danak. Ez dakit nik nundik zeuken hori, baiña... Ta sekulako zerak. Ez [zate] akordatzen? Kantuak eta honek...
- A! Maristak?
- Bai. Gero ipini zuan...
- "Cara al sol" eta...

- Ez, ez, "Cara al sol" baiño gehixao. Gero honek [puskat]...

- [...]

- Horrek ipini zebe, abrilan lehelengo eguna zan "el día de la victoria". Orduan akabau zan gerria, ta zelebratzen zan "como día de la victoria". Ta, gero, nik ez dakit, ba, zeatik ipini zotsen "día de la canción" egun horri. Orduan, umiak --honek, lehen esan doten maistro honek, behintzat--, umiak-eta preparatzen zittuen kantu patriotiko edo zerekin. Ta gu, behintzat, akordatzan naiz pare bat urtian kalia ibili giñala. Mezetara juan formauta, zerian mezia entzun...

- "Primero de abril".

- "Primero de abril", horixe, ba. Gero "día de la canción" ipini jakon izena. Gero aiuntamentu aurrian han kantu batzuk ein, ta gero atzera berriz kantuan desfilauaz, ba, holan etortzen giñan hona, eta hemen, hemen nola aktuau giñuan be akordatzan naiz ni! Hemen "marista txikixa" dana. "Marista txikixa" esaten jakon maristatarako formatzen zebitzen hemen bizi zien ume horrek. Horrek hamabittik hamalau bat urtera edo. Hau dana horrekin beteta. Ta guk hor ikessitako kantu horrek nola kantau giñutzen hor.

- Pentsau, patixuan desfilatzen [giñuan], e!

- Desfilau [...]. Bai, bai.

- Handik etorritta...

- Handikaldera etorritta, handikaldera patixora etorritta.

- Lehelengo aldiz [regaliza] orduaintxe [aprobau] giñuan. Gero [danei regaliza].

- Bai, [gero premixua] ta gustora.

- Gustora zuek, onbre...!

- Formauta elizara be [juaten giñan] gu, e!

- E?

- Formauta elizara be ta bezperetara be.

- Bezperetara, bai, bai, bai.

- Konfesatzera be bai.

- Epoka haretan.

- Gerra-denpora... Gerriak iraun zebe bittartian behintzet...

- Bai, gu gerra-denporan... Bueno, gerra-denporan ez zan egon. Gerra-ostekuak giñan gu, eta horrek esan dabena: goizian mezetara, hamarretako mezetara --meza nausixa esaten jakon-- hemendik formauta juan. Atzera formau ta hona etorri. Eta epoka bat bezperetara be bai. Atsaldien bezperak egoten zien, ordubeteko elizkizun bat edo. Bezperak kantau ta gero erresarixua. Hamendik harutz formauta. Ta gero haura ya atsaldian oso gutxi... Atsaldian, handik gero libre lagatzen juen, ez? Oin, lehelengotan, formauta atzera etorriko giñuztan bezperetatik, baiña, bestela, atsaldian...

- [Formauta etorri?]

- Ez jakixat. Ez juat uste...

- [...] zuan. [Jun bai mezetara...] biher izeten zuan [...]. Gero, [...] etorri ta notak-eta egoten zittuan.

- Hori! Bai, bai, bai. Notak partitzia; astero notia. [...] ze resultau euki ziñuan aste haretan. Erun biher ziñuan etxera, ta gurasuak, han ipintzen zeban, alde batetik profesorian firmia, ta gero beste aldien gurasuen firmia.

- Astero-astero hori, e?

- Astero-astero, bai. Horrek esan dabena: handik formauta etorri, nota horrek hartu eta etxera. Astero-astero.

- Beittu zelako zera eukitzen giñuan, oin, joe, esamiñak ein bihar dia, bestia juniuan ta zera ta... Orduan eukitzen giñuan eskolan bakutxak bere kontrarixua konparatzeko harekin.

- [Emulua].

- [Emulua] esaten gontsan.

- Notetan etortzen zan gero, etxera bialtzen zanian, "vencido" o "vendedor", emuluakin konparaziñua eindda. Bestiak, aber, bere horrek, konparatzeko ipinittako harek berorri irabazi dotsan ala berorrek hari irabazi dotsan.

- Haura nola izeten zuan? Bere maillan zebillenari ala zelan?

- A! Bere maillan [...].

- [...]

- Bai, bai, bai.

- Alkarri galderak.

- Gero batallak.

- Horrek batallak...

- Holaxe, ointxe bezela, genden bezela, ta honen kontrarixua ni, konparaziño batera. Ba, nik eitten banotsan honi galdera bat, horrek erantzun ein bihar zostan. Eta bestekaldera berdin horrek be. Horrek be iguala.

- Erantzuten ez bazeban, kalera. Kalera esaten jako, ba, bere jarlekura. Honek, ba, jartzen zan erdixe alderdi baten ta beste erdixe beste aldian. Eskolan alde batetik bestera. Ta "da!" hari bihetzakín edo izena edo esaten zan ta, benga, galderia edo honek be bai, multiplikaziñuak eta.

- Kontuak eta...

- Bai, ta zerak eta, berbuak! Berbuak? Jo, orduan guk berbuak...

- Bai, majo ikasiko ziñuzten, bai!

- Eske, fallatzen baziñuan kalera [...].

- Ya, ya, horreatik! Eskola erdixan hola...

- Akordatzen zian berbo danak eta eren zer danetan.

- Ta hori, hau esaten gabizenau, gure denporan, lehen esan doun urtian azkenengo jaialdi horretan, gure parian ez zan tokau. Gu baiño zaharrauak, gure anaiak-eta, han, herri guztian aurrian ipintzen zittuen: batzuk alde baten ta bestiak bestian. Han faten zien "taka-taka-taka". Ta herri guztia begira.

- Biheko ikesi bai, biheko ikesi! Bestela...

- Ikesi?

- Han nerbixoik eta ez zeban balioko. "Ez naiz akordatzen" ta...

- Ez, han ohittuta [hara]. Bueno, harek... bai, inponiduko zotsan publikuak. Ez dakit hori, baiña hori eitten ohittuta bai, zeatik geuk be asko eitten giñuan ta.

31. Lagunarteko jolasak

- **Erref:** ANT-018/063
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Umetako jolasak. Flotaka. Flotarekin egiten zen jolasa. Tiragoma eta onda.

Transkripzioa

- Gero, flotia esan dozunian, flotakin... Hori ez dakit iñok esplikauko zeban, flota. Beste juego bat, ba, juegua, a fin de cuentas. Hor dao, erreka

ertzetan egoten da landara bat. Ta hemen, jeneralian --bueno, jeneralian, lagatzen bajako--, hazi eitten da. Baiña eukitzen dau hiru bat zentimetro inguruko diametroa, eta da egurra barruan muna daukana. Zuluua barruan...

- Intxusia edo?

- Intxusia, bai.

- Ta muna hori, ba, kendu eitten jako. Oso errez kentzen jakon. Eta geratzen zan, ba, hamar bat milimetro inguruko diametroko zuluakin. Ta gero eitten zan egur bat, hamar bat milimetro inguru edo mehetxuaua, han, behintzat, aurrera ta atzera ibiltzen zana. Ta gero horri ipintzen jakon esku-lekua. Osea, ba, beste hiru bat zentimetro inguruko diametrokoa. Orduan, zulatuta zeunkan flota esaten jakon intxusia zer horri ipintzen jakon ahuakin mastikauta zer bat, kartoia edo papela edo zera.

- Kerrua [...].

- Kerrua [be bai].

- Haura ipini. Gero hartzen zan estomagan kontra, hamen, erdi-erdixan, eta tira eitten jakon. Eta zenbat eta presiño tiran haundixauan [zauen], orduan ta tirua urriñaio faten zan. Flotaka ibiltzia esaten gontsan guk.

- Ta gero beste bat ointxe akordau [...].

- Orduan bazittuan eskillarasuak botatakuak eta be bazittuan orduan.

- Harekin?

- [...] lehen esan dozun haura?

- Tiragomia.

- Tiragomia.

- Bai, bai.

- Bai, hori bai. Lehen aittatu [...].

- Tiragomia ta ondia.

- Tiragomia ta ondia.

- Ta horrekin ze eitten zan botatzera edo ze...?

- Bai, bai.

- Konpetiziñuak edo zeoze jote...

- Gerrak be bai [San Antoniokuen] kontra ta... Ez [haiz] akordatzen?

- Bai, bai.

- Benetan, e! Holakotxe harrixak alkarri botatzen.

- Hor illunpera ta jua, ta han ya zitauta konbatia han izengo zala ta sekulako... Ta, gero, el colmo haura izen zan, haura zertu ta gero maristan batzuk ez dakit nik Bergaratik Antzuolara zetozen, ta harek ikusi. Ta harek ikusi giñuzenok, behintzat, parian tokau giñanok, hartu ta hona. Ta hemen atsalde guztia...

- Kastigauta. Kastigauta.

- [...] haura inportantiena izen zan [...], detalle inportantiena.

- Haura [...].

- Orduan bi egoten zittuan. [...]. A! kastigua gehixao?

- Bai, batekin igual ez zuan akabauko haura.

- Baiña garbedaderik ez zuan egongo, eztok?

- Bai! Tokau ez!

- Ke ba!

- Tokau ez.

- Tokau zeikian, eztok? Tokau zeikian.

- Bai, ni akordatzen nok handik hona [eliza...] ta...

- [...] eliza ostian [... illaran... zulu...].

- Ez. Hor kontuan euki bihar dok, guk, ba, gerra-denporako zera... Gerra... Ordukotxiak giñuztan ta [...].

- Orduan bergararren kontra oso [...].

32. Aste Santuko prozesioak; gurutze-bidea

- **Erref:** ANT-031/001
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Antiguako santua eta Ama Birjina. Aste Santuko prozesioak. Gurutze-bidea. Erramuaren bedeinkazioa. Ostegun Santuko elizkizuna; kanpaiak jotzen ziren orduan azkenengoz, zapatura arte.</p>

33. Aste Santuko prozesioak

- **Erref:** ANT-031/002
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:07:25

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Aste Santuko prozesioak. "Nazareno txikiak". Prozesioaren inguruko azalpen zehatzak. Santuak; kandelak, etab. nortzuk eramaten zituzten. Familia bereko belaunaldi batetik bestera pasatzen ziren prozesioko egitekoak.</p>

34. Aste Santuko prozesioak

- **Erref:** ANT-031/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:09:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Aste Santuko prozesioak. "Nazarenoak". Prozesioaren inguruko azalpen zehatzak.

35. Gurutze-bidearen inguruko azalpenak; kantak

- **Erref:** ANT-031/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gurutze-bidearen inguruko azalpenak. Orduan abesten ziren kanta batzuk. Abesti guztiak euskaraz izaten ziren.

36. Aste Santuko prozesioak; ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-031/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:10

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

<p>Aste Santuko prozesioak. Jauna elizan gordetzen zeneko azalpenak. Giltzarekin ixten zen eta alkateari ipintzen zitzaion giltza lepotik zintzilik. Ostegun gauean "Tinieblak" egoten ziren elizan.</p>

37. Aste Santuko ospakizunak

- **Erref:** ANT-031/007
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Aste Santuko ospakizunak. Ostiral Santu egunean egiten zen elizkizuna, prozesioa... "Belaziñuak" gau eta egun. Gurutzearen adorazioa.</p>

38. Gurutze-bidea; ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-031/008
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:19:55

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ostiralean ere gurutze-bidea egiten zen. Udal korporazioa, autoritateen gurutze-bidea izaten zen. Lehenago udal batzak ere bere toki berezia izaten zuen elizan. Alkate-makila uzteko lekua.

39. Uraren eta suaren bedeinkazioa

- **Erref:** ANT-031/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:23:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Larunbat goizean, uraren eta suaren bedeinkazioa egiten zen. Mutikoak "illeskia"rekin zain egoten ziren; etxerik etxe sua banatzen. "Ave María su berri, etxe honetan zer berri". Neskak ur bedeinkatua banatzen ibiltzen ziren.

40. Prozesioan beherakada

- **Erref:** ANT-031/011
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ohitura hori, bedekazioa gauera pasa zutenean amaitu zen. Prozesioak ere noiz hasi ziren galtzen; zergatik.

41. Aste Santuko beste kontu batzuk

- **Erref:** ANT-031/013
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Aste Santua, arropa berria estreinatzeko sasoia. Emakumeen arteko kritikak, txutxu-mutxuak...</p>

42. Aste Santuko prozesioak; garizumako ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-031/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:33:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Aste Santuko prozesioak. Korua joaten zen kantatzen. Kanpaiak jotzen ez ziren egunetan, "matrakia" jotzen zen. Garizumako ohitura zaharrak. Antzuolako jaiak ere dataz aldatu zituzten.

43. Aste santuko debekuak

- **Erref:** ANT-031/015
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:38:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Bezperak izaten zituzten garizuman. Igande arratsaldeetan Goriara joaten ziren oinez. Iluntzean, "kalbarixoak" egoten ziren. Gaztetxoagoek "galderonka" jarduten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Aste Santuko debekuak. Aste Santuan, elizako santuak tapatuta egoten ziren.

44. "Txarronanena" etxekoa

- **Erref:** ANT-070/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Purita Zabalo Zabalo 1934ko otsailaren 3an jaio zen gaur bizi den etxe berean. "Txarronanena" deitzen diote etxe horri, bere aitak zuen kamioiaren izenagatik.

45. Gerra denboran umea zen

- **Erref:** ANT-070/003
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Udala baserrikoa zen. Ama Lazkaon jaio, bost urterekin umezurtz geratu eta etorri zen aitajaun eta amandrearen etxera. Etxe honetara ezkondu zen aita. Gerra denborako oroimen gutxi ditu. Espainiako militar batzuek etxean lo egiten zutela oroitzen da.

46. Soldaduak herrian kanpatuta

- **Erref:** ANT-070/004
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:05:17. **Bukatu:** 00:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Soldaduak pilotalekuan eta eskolatan kanpatuta gogoratzen ditu. Gerra garaiko militar baten eta antzuolar eskuindar baten hiletak gogoan ditu; bi hiletetan musika-bandak parte hartu zuen.</p>

Transkripzioa

- Hirugarrenian be bizi zan famelixa bat izatez nere aittan lehengusua, aitta zanen lehengusua. Eta hirugarrenien bizi ziren; bat zan abadia eta bestia militarra zan. Nik harena goguan daukat hola, hogeta hemeretxizan hil zan, eta zan estudixokua eta zera zan, baiña haura hil zan hogeta hemeretxizan geixotuta hil zan. Haren akordua badaukat, bost urte

neuzkan nik baiña haura daukat ondikan be grabauta.

- Goguan dakotzu militar batek zela loratxuak-eta...
- Gero baitxa akordatzen naiz ni zela akanpauta egoten ziren hemen frontoian eta klaro, harek ogixa, txuskuak eta eukitzen zittuen eta gu ingurutara jun eta txuskuak emuten zoskun. Eta gero hementxe eskoletan be egon ziren, eskoletan be egon ziren orduan akanpauta, hamen. Orduan eskolarik ez zalez egon, hortxe egon ziren soldauak. Hantxe parian. Eta gauza horreik bai, baiña bestela ez hola goguan...
- Zuk orduan bi urtetxo.
- Bi urte hasi zanian, hiru urte itteko eta ba klaro, orduan ez baiña bost urteko kontuak bai, ya bost urteazkerio dauzkat goguan zela izan baitta hamen Telleria izan zan, hemen famosua, deretxakua zan haura, zera, bai horrek, karlistak edo ez dakit zela ziran zerak, eta famelixa bat. Bestela, zera baiña ideologia hori, gero horrek diru mordua in zeбен gaiñera.
- Gerra ostian?
- Gerra denporan, porke horrek guarnizionerixia zeuken, zeuken "fábrica de curtidos", [...] haura hil zanian be, edo haren entiarruakin, daukat oso goguan, bai beste militarra hemen hirugarrenian hil zana eta horrekin, horrek bixakin oso goguan daukat nik horrek. Bandiakin izan zan, bixak bandiakin in ziren zerak.
- Jente printzipala zan orduan.
- Bai, hori be bai, eta gero hau ba, honek zeukan anaia abadia, gero izan zan Uzarragako parrokoa, baiña hori izan zan esaten dot, klaro, haura, urte berdiñian hil ziren horrek. Bai bata eta bai bestia. Hari bandiakin eta hemenguari be bandiakin in zotsen.

47. Bi belaunaldi, maistra bat

- **Erref:** ANT-070/005
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:08:16. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Antzuola inguruan bonbardaketaren bat izan zen; herri barruan, baita tiroketaren bat ere. Hala eta guztiz, ez zen txikizio handirik izan Antzuolan. Maristen eliza erre zuten. Bi urterekin hasi zen "eskola txikian". Gerra garaian, orde, eskola eten egin zen, eta gerraostean sei urtera arte eskola berean jarraitu zuen, Maria Barrena maistrarekin. Puritaren alabarik zaharrenak ere maistra horrekin ikasi zuen urtebetez.</p>

Transkripzioa

-Eta ze geratu zan, oso apurtuta geratu zan Antzuola? Frentia bertan egon zan-edo?

-Ez, soldauak bai baiña hola apurtu ez eben...elizia erre zeбен, maristen elizia.

-Erre in euein?

-Haura erre zeбен. Bai, ni nenguan orduan Udalan, baserri horretantxe, eta ordun bota zittuen bonbak, bonba mordua bota zittuen orduan hementxe, gure etxe osteko zerien eta Udalan bittarteko mendi hortantxe. Nere anaiak eta ganauak erretiratzen ziharduen baserrira, jua ziran harutz eta

harek etxera erretiratzeko, baiña bota zittuen bonbak. Baiña gero hola kalia bai, kalia tiroteua eta izenda bai, porke gure bentanetan eta agertzen ziren zuluak, bai, zuluak agertu ziren. Baiña jendiak erten itten zeban hemetikan, kaletikan. Juten ziran norabait! Ez dakitz seguridadia nun zeuan, baiña norabait erten itten zeuben.

-Orduan zu eskolan hasiko ziñan e...

-Bai, ni oso txikittan hasi nitzan ni, porke gu juten giñan lehelengo eskola txikixa esaten giñuana, ba oin "maternal" esaten dan bezelaxe. Ba nik eukiko nittuan urte te erdi-bi urte. Han ya andra bat egoten zan umiakin, harek zaintzen. Eta eskola bat zeuan hortxe, bestien onduan, eskola txikixa esaten gontzana eta ni orduan edade hortan ya horretxekin hasi nitzan. Eta lehelengo sei urte arte han.

-Baiña urte ta erdikin edo bikin hasi baziña, ondiok gerra garaixa zan, ezta?

-Zela?

-Ondiok gerria zan.

-Bai, bai, bai, bai. Bueno, gerra denporan hasi in nizan horrekin, bai. Baiña gero ya gerria hasi zanian geratu, bai geratu. Baiña gero sei urte arte atzera segitzen ziñuan hantxe. Ni hametik tropa danak jun ziranian, seguramente berriz'e martxan jarriko zan, porke ni akordatzen naiz oso umetan, sei urte arte hantxe ibili nitzala.

-Zela esan dozu eskola horren izena?

-Eskola Txikixa esaten gontzan.

-Eskola Txikixa.

-Maistria Maria, Maria Barrena. Eta kasualide bat da gaiñera, ni horrekin ibilli nitzan eta gero nere alaba zaharrena be horretxekin ibilli zan.

-Orduan gaztia zan zurekin ibilli zanian.

-Ba gaztia, bai, berak ondiokan txikixak zeuzkan.

-Bai, zeatik zuk zenbat urtekin euki zeuben leheningo alabiori?

-Nik euki neban hogeta lau, hogeta seikin.

-Hogeta seikin. Orduen emakume hori zuk bi urte zeukanetik, edo hiru-lau urte zeukanetik hogeta sei arte maistra jarraitu eben?

-Bai, holaxe jardun zeuben, jarraitu zeuben hortxe. Eta bai, zeozter kobrauko zeban ta jendia ba zaharrena, urtebete-edo ibilliko zan, baiña harekin ibilli zan.

48. Eskolan euskaraz ezin mintzatu

- **Erref:** ANT-070/006
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:11:33. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

"Eskola txiki"tik nazionaletara pasatu zen. Euskaraz egiteagatik pisuzko zerbait ematen zieten eta eskuetan edukitzeko agindu harik eta beste bati pasatu arte. Pisu hori eskuetan zutela ezin zuten jolasik egin. Kaletar umeez erdaraz zertxobait egiten zuten, baina baserritarrek deusik ere ez. Egunaren bukaeran pisu hori zeukana zigortu egiten zuten. Maristetan gauza bera, baina pisuaren ordeaz eraztuna jartzen zieten ikasleei gaztelaniaz egiten zutenean.

49. Katona eta abakoa

- **Erref:** ANT-070/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Maristetan mutikoen egurra hartzen zuten euskaraz egiteagatik, baina nesken eskolan zigorrak ez ziren hain gogorrak. Eskola txikian katonarekin eta abakoarekin irakasten zieten irakurtzen eta kontatzen.

Transkripzioa

-Eta horrek eukitzen zebena zan regliakin...
-Bihetz puntetan.
-Esku puntetan, han gogor itten zotsen.
-Ni gaztiaua naiz baiña nik be ezautu dot hori.
-Hemen "en cambio" neskeri ez, neskeri ez oskuein guri hori itten.
-Jo ez otsuein itten?
-Ez, ez oskuen jotzen hola zera e? "Únicamente" horixe, ezin euskeraz, berak maistrak lagako zoskuen itten zeran, neu gaiñera neu zela izan nitzan oso mimautakua maistriakin, oso mimauta euki nindduan ta ba ez, baiña harek kastigu hortariko zerak emutekuak ez ziren.
-Eta maistriori, Maria esan dozu?
-Ez, hori zan maistra txikixa, hori hamengo maistra, hamengo andra bat zan. Andra bat umiak zaintzearen, baiña gero guri erakutsi egitten zoskun katoia, eta katoia leitzen erakutsi itten zoskuen guri eskola txikixan. Hasten giñan "ma" eta "mi" eta bestela, ba bueno, eta numeruak zela da? Numeruak ba zelakuak ziran eta hortariko, zela esaten da hori, Jesus, oin ez jat akordauko, boladun zer hori?
-Abakua?
-Abakua. Abako hortariko bat, haura haundi bat geukan.
-Kontaitteko eta?
-Eta harekin kontatzen ta ba, hori hantxe ikasi ginddutzen guk e? Hemen jente guztia ez zan juten, baiña hemen inguruan gendenak gu beti jun giñen, gu beti jun giñen. Eta ni neuk'e... zaharrena aurretikan, hartu eta bialdu, orduan in neban halaxe, bittartian behintzet ba bueno, han ondo egoten zala eta...

50. Eskola utzi eta joskintza ikasi zuen

- **Erref:** ANT-070/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:18:49. **Bukatu:** 00:20:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Zazpi neba-arrebatatik gazteena da Purita. 15 urterekin eskola utzi zuen. Aitaren lehengusina batekin josten ikasi eta gero Bergarara joan zen "Corte París" ikastera.</p>

51. Antzuola eta Bergara elkartuta

- **Erref:** ANT-070/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:20:57. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

XIV. mendean elkartu omen ziren Antzuola eta Bergara, "para siempre jamás", eliza nagusia Uzarragakoa zenean. Gallastegiren Dorrearen harriekin eraiki omen zuten Olaran etxea.

Transkripzioa

- Garai haretan oingo modura Antzuola eta Bergara aparte egozen, edo...?
- Ez, aparte.
- Betik izan da aparte Antzuola?
- Ez, ez, ez, ez, ez, ez. Lehenago uniduta, alkarrekin egon ziran urte mordoxkia. Horrek artian Uzarraga zegoela, osake Antzuolak artian ezaban esistitzen.
- Izena be ez?
- Izena, izena bai bazegoen itxuria dauenez zeozerena. Baiña lehelengo Uzarraga zan hau.
- Eta hori zer zan, Bergarako auzo bat?
- Ez, haura zan Antzuola, hamengua. Baiña elizia zeguan han, Uzarragan, eta hemen elizia milla bostehun eta hogeta bostian in zebein, orduan konsagrau zan hau eliza hau. Baiña aurretik, nik uste dot hor milla hirurehun ta piku zeren baten unidu zirela Antzuolakuak Bergarakin "para siempre jamás" orduan baiña segidun gero hasi ziran. Gero hemen ittia pentsau zebein elizia, haura puxka bat urrin samar edo separau geratzen zala, eta ordurako hamen egongo ziran etxiak edo egindda, porke hor etxe bakarrak bazeren. Bat, Gallastegi uste dot zala, "Torre de Gallastegui"-edo, gero ya hura jausi egin zan. Haren harrixakin eta gauzak, hango harlandu eta harrixakin in zebein oin Olaran dan etxe hori. Hor dago, ez dakit ikusiko zindduen zuk...
- Igual ez, Kultur Etxia-eta egongo da hor?
- Bai, kultura, hor gauza asko dare. Oin arte egon da, oin in dabe bertan beste berri bat in dabe jubilaundako eta auditorixua eta horreik danak in dira oin.
- Herriko gauzetarako, ezta?
- Bai, auditorixua eta zera, medikuendako despatxua be hor doia oin, ondiokan jendia...
- Anbulatorixo edo holako zerbait?
- Anbulatorixua han doia. Eta gero dago "Centro de día" eta dago baitta zera, "Casas Tuteladas"-edo. Hortariko...
- Emakumientzako eta hola?
- Bai, nahi dabenak batzuk jarritta dago ya bertan bizitzen. Tutelau ba horrek janak eta ingo jaue eta gero ba bestela norberak ittia, nahi dozun

52. Antzuolarrak Bergararekin haserre

- **Erref:** ANT-070/011
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Errukizko Andre Mariaren eliza 1525. urtean sagaratu eta Antzuolako parrokia bihurtu zen. Honen inguruan herria haziz joan zen. Bergarak Antzuolako Alardea bere plaza nagusira eraman nahi izan zuen, baita Antzuolako beste ekitaldi ofizial batzuk bereganatu ere. Horrek guztiak haserre piztu zuen Antzuolan, eta XVII. gizaldiaren bueltan auzitara joan eta Valladoliden erabaki zen bien arteko banaketa.

Transkripzioa

-Eta zela akabo euen azkenien Antzuola eta Bergarako kontuok?
-Geizki. Klaro, pasatzen zana zan hemen "Alarde de", moruan alardia itten da, ezta? Eta "Alarde de armas" zan orduan, itxuria dauenez hori herri gehixenetan uste dot itten zala. Zenbat dagon soldauskarako zerako-edo, itxuria danez hortariko gauzan bat zan lehenau itten zana. Eta Alarde hori nahi zaben bergarrarrak Bergarara eruatia eta han ittia, Bergarako plazan ittia. Eta nones hemen.
-Hemenguak ezetz.
-Ez, ez, Antzuolako plazan in bihar zala, porke ordurako hemengo parrokixia zeguan ya konsagrauta, ya ipiñita zeguan eta ya herrixa puxka bat ba haundittu in zan. Eta haunditzen-haunditzen zijoiala ba ikusten zebe ez eukela bergararren premiñik. Bertan in zeikiela gauza guztia, eta klaro, hori ezta pentsau be ez, e?
-Hori bergararrak onartu ez?
-Bergarakuak hori nahi. Eta azkenien Valladolideraño jun bihar izan zeuen, eta hango... han zertu zan...
-Ya apartaittia?
-Hemen, Antzuolan ittia, antzuolarrak Antzuolan.
-Eta hori ze urtetako kontua dan badakitzu?
-Ba hori izango zan milla seirehun inguru horretan-edo, milla seirehun-edo urteko zeretan porke gero orduntxe ya separau ziren gero.
-Oseake eliziau konsagrau eta handik gutxira orduen.
-Bai, handikan urte batzuk artien segidu zebe baiña klaro, ikusten zebeñian, artian beste gauza bat euki zebe. Gero zeguan, hola personalidade haundixak etortzen ziranian, pasatzen ziranian hemen, ba herriko banderiakin errezibimentua itten zindduan hareindako, eta bergararrak atzera esijidu zebe Bergarara juteko antzuolarrak eta han rezibitzeko. Eta ezetz.
-Eta antzuolarrak ezetz.
-Ezetz. Eta idea horrekin atzera berriz jun ziran Valladolidera, eta han irabazi zebe berriz eta bueno, ya geratu ziren.
-Holako lege asunto, administraziño asunto danak Valladoliden orduan.
-Valladolidera. Eta orduan hartu zebe ya resoluziñua bueno, separatzia.

53. Bi parrokia Antzuolan

- **Erref:** ANT-070/012
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

<p>Antzuola eta Bergararen arteko banaketa egin eta gero, Galartza auzokoek Bergaran jarraitu nahi zuten, baina Antzuolak hori ez zuen onartu. Antzuolan lehen bi parrokia zeuden, baina abade gabeziak eta errepide eta autoen ugaritzeak Uzarragakoa uztera behartu zuen.</p>

54. Abade bat bakarrik

- **Erref:** ANT-070/013
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Antzuolan abade bakarra geratu zenean, Uzarragako mezak kendu nahi izan zituen, baina parrokia zenez, ez zioten utzi. Gaur egun Bergara eta Antzuolarako bi abade besterik ez daude.

55. Lau umerekin ezin jostun jarraitu

- **Erref:** ANT-070/014
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jostun lanean janzteko arropa egiten zuen, jostundegia etxean zuela. Senarra arotza zen eta altzari denda jarri zuten etxean. Bi ume zituela haurdun geratu eta bikiak izan zituen. Lau ume zaindu beharrak joskintza uztera behartu zuen Purita.

Transkripzioa

-Jostun lanak ze itten zittun, etxien?

-Bai.

-Taillerra eta etxien zeukatzun?

-Etxien. Eta hementxe, nik orduan sukaldia behien neukan, hementxe.

-Ze itten zeuben, janzteko erropak-edo...?

-Bai, janzteko, janzteko erropak. Bai, nik josten neban hasi abrigo, traje, zer

guztiak itten nittun orduan.

-Eta noiz arte ibilli zara lan horretan?

-Ezkundu eta leheningo bixak euki nittuanian ondo ibilli nitzan. Greo ipiñi giñuan hemen denda bat, mueblerixia. Arotza zan nere gizona eta ipiñi giñuan muebliak saltzen hemen. Eta orduen sukaldia gora jaso eta hau ipiñi giñuan denda. Eta klaro, beste lan bat gehixau geratu jatan, baiña nik orduan ama neukan etxian eta bueno, nehiko zerekin. Eta ondikan ba bueno, esaten notsen, bertan, ba itten neban bat atendi u eta bestia atendi u, bixak, eta hola. Baiña haurdun geratu nitzan bi euki eta gero bigarrenak bi urte eta erdi zeuzkala, eta haurdun geratu nitzan eta ondikan ba famelixa gutxiagokin, neukan ba hartuta famelixa batzuk eta haretxeri josten notsen. Eta esaten nosten, hirugarrenak asko lotzen dau gero, asko lotzen dau, eta gero zera, gero bi.

-Bi batera?

-Bi batera. Orduentxe kitto!

-Lau ume euki (di)ttozue orduen? Edo gehixau?

-Lau, bai. Bi neska-mutillak bigarrenak. Edo hirugarren zerian, bueno, orduentxe dana laga bihar izan neban. Etixerako bai, e? Etixerako betik dana josi neban.

-Orduan esan dozu gizona Udalako...

-Ez, nere gizona ez, nere gizona zan... haura Udalakua zan aitta. Nere gizona hemen, Kale Goikua, bai, arotza.

-Bera ezkondu zan hona.

-Bera ezkondu zan honutz, bai.

-Orduen bera arotza.

-Arotza.

56. Plaza zaharra eraldatuta

- **Erref:** ANT-070/015
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

1988. urteko uholdearen ondorioz, altzari-denda itxi behar izan zuten. Puritak erreka beti estalita ezagutu du. Baina, azken uholde horren ostean, bidea berrireki zioten errekar; eta, aldi berean, gainezka bide bat eraiki. Pena handia hartu zuen Puritak plaza zaharra eraldatu zutenean.

57. Uholdea sukaldean

- **Erref:** ANT-070/016
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:35:45. **Bukatu:** 00:39:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Bi uholde handi ezagutu ditu Puritak. Lehenengoa 1940an, berak sei urte zituela. Bera bakarrik zegoen sukaldean ura sartzen hasi zenean; sukaldeko ekonomia gainera igo eta han ere ura goraka zetorrela heldu zen aita, eta onik atera zuen. 1988ko uholdean Puritaren etxe ondoko taberna inauguratu berrian arazo larriak izan zituzten.

Transkripzioa

-Nik bi ezagutu dittut hemen, haundixak e?

-Larogeita zortzikua eta?

-Eta berrogeikua.

-Milla bederatzirehun eta berrogeikua?

-“El año cuarenta”.

-Zuk zeukatzun sei urte.

-Sei urte. Hemen geunkan sukaldia orduan. Sartu jakun hortikan eta gurian gurasuak zeren ura etaratzen aurrekaldetik, porke orduan oin maillia gehixau dauko, baiña orduan zeuan, karreteria bajuau eta sartzen jakun atarira. Eta ura ataratzen hemengo atia itxitta tokau zan eta ni sukaldian. Hasten jat handikan ura sartzen eta ni larri hamen sukaldian, ura gora eta ura gora eta ni dierka aitta-ameri eta ez osten entzuten, zaratia, tamaiña horretako zaratia zeguan! Eta ixo dot zeran, ekonomia gaiñera, su gaiñera ixo txapan, artian handikan be gora, ni dierka baten, nere estuasuna baiña sekulako estuasuna! Eta holakon baten akordau da aitta, eta orduen geunkan hortikan sartu eta goitxikan hemen behera, etxetikan behera geunkan eskillaria; handik sartu zan porke hori ezin zabaldu, hemengo atiak ezin zabaldu, zeguan dana hartuta eta hartu neban zera, hartu eta ni leheningo pisuan ez nitzan geratu, bigarren pisuraino.

-Hori Milla bederatzirehun eta berrogeixan orduan?

-Berrogeixan hori.

-Ze izan zan, larogeita zortzikua baiño haundixaua?

-Haundixaua uste dot izango zala, porke orduan ez auan hainbeste kotxe, eta klaro, oin ikusten zan kotxe asko zeuala eta zerak, baiña orduan oso haundixa izan zan, bueno! Berrogeikua hor plazan hor daren balkue haretara, bum! Han bertan juten zan.

-Egon zan, galdu zan jenterik edo?

-Ez, bat etara zebeñ sokakin, baiña ez zan egon. Jentia klaro, hor gora aldera ez zan egoten, dana zan behe aldera, hemetikan behera, hemetik gora ezebez. Neri pasau jatan larogeita zortzikuan, ba nenguan, terrazia daukogu jarrita atzekaldian eta hor tabernia, ezta? Orduentxe inauguratu zeuen.

-Tabernia zeuena?

-Ez, ez. Tabernia, aldameneko taberna hori, eta orduentxe inaugurata zeuen hori. Berrixa in zebeñ etxia hori, inaugurata, eta haren jabia eta beste bat, klaro, zeozer salbatzia nahiko zebeñ eta etxe ostian zebiltzen eta klaro, holakoraiño koan urak hartu zosten etxe ostien eta esaten zostan, “Purita, échame una cuerda!”. Ni sokia nundik ipintteko, jun balkuera eta hemen zeren jente mordua kanpuan, hor, ez zan aillegatzen horrutz ura, eta esaten notsen “soka bat bota eizue, soka bat!”. Esaten zosten, “baiña sokia zertarako, horraraiño ez da aillegauko ura!”, “Ez dala neretako!”

-Zeretako zalakotan eurak, ezta?

-“Sokia!” Eta keba, ez neban kontsegiu, azkenian porke ez ebein entenditzen atzekaldian ze pasatzen zeuan. Eta azkenien ixo zebeñ terrazara. Haren desesperaziña! Klaro, ez eukan ondikan aseguru barik. Fiestetarako zabaldu zebeñ eta... fiestan hurrengo eguna zan hori. Fiestak akabo eta hurrengo...

58. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-070/017
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:39:43. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Antzuolako jaiak abuztuan izaten ziren, baina orain uztailleko hirugarren astean izaten dira. Eskola garaian sokasaltoka, tortolozka, kalderonka, kantoeka eta tre(s)nabiozka jolasten zuten.

59. Senarraren arotz lanak

- **Erref:** ANT-070/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:45:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Senarra arotza zen eta baserrietarako mota guztietako altzariak egiten zituen. Pinuzko hilkutxak ere bai, barrutik oihalez forratuta.

60. Euskal dantzak ikasten

- **Erref:** ANT-070/019
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:45:20. **Bukatu:** 00:47:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Umetatik gustatu izan zaio dantza egitea. Mutilek bazuten non ikasi, baina neskek ez. 12-13 urterekin, Zumaiaetik etortzen zen lagun batek irakatsi zien dantza egiten. Geroago "Acción Católica"-ren babespean talde bat osatu zuten, eta Ondarroatik Eibarrera etorritako Gregorio Santa Kruzekin ikasi zituzten euskal dantzak, igande arratsaldeetan elkartuta.</p>

Transkripzioa

-Nik entzunda dakot zuk dantza talde baten edo zerbaitetan ibillitakua zariela, ezta?

-Bueno, bai. Askotan.

-Nundik ataraten zebeñ ba astixa? Ondik umiak txikiñak zirala edo geruago hasi ziñan hortan?

-Ni hasi nitzan, [...] neri aittak esaten nostana, jaixo nitzanian uste dot hasi nitzala ya dantzan. Asko gustatzen jaten neri dantzia-eta. Gero hemen kuadrilla bat geunden, ez dakit ba nik zenbat urte eukiko giñutzen, hamar-hamabi, porke artian aurretikan neskendako ez euan ezer. Mutillak bai.

Mutillak, mutillen grupuak bazeren, baiña neskena sekula egoteke zeuan. Ta Zumaixako bat etortzen zan, nere lagun bat, euko zittun ba ez dakit ba hamabi urte-edo, eta haxe erakusten hasi zan geuri. Erak ikasten zebena geuri irakusten.

-Laguna emakumezkua, neskia?

-Bai, neskia, hemen zeukan tia. Tianian egoten zan denpora askuan eta beran lehengusiña eta gu kuadrillakuak giñan eta erakutsi zoskun dantzak. Hamabi-Hamahiru urte-edo euko giñuzen eta ikasi giñuzen, eta lehelengo dantzak hareitxek euki giñuzen, edade horrekin. Gero pixka bat galdu giñan baiña atzera berriz pentsau zan berriztia, ya hobeto ikasi tta ittia, eta hala grupua, orduan ya baten baten babespien in bihar izaten ziran gauzak, eta Akzion Katolikia. Bueno, hango zerak, organizadoriak edo han zerenak, bueno, in in bihar zala eta hartan. Eta ikasi giñuan, Eibartikan etortzen zan erakustera.

-Ze dantza klase ikasten zeuein?

-Euskal dantzak. Geunkan hori eibartar hori, bera izatez eibartarra ez zan baiña, bera Ondarruatikan Eibarrera etorritako zer bat zan. Ona gizona, eta ze lan egin zeban harek dantziakin, asko, Gregorio Santacruz. Oso, eta horixe, bene-benetan hartu zeban, etorri zan eta erakustera. Halaxe juntatzen giñan domeka atsaldetan.

61. Aita eta senarra ere dantzariak

- **Erref:** ANT-070/020
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:47:53. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

8-12 neskatala joaten ziren dantza taldera. Bere senarra izango zenak laguntzen zuen nesken dantza taldean. Puritaren aita ere euskal dantzaria izan zen. Urte askoan ez zieten utzi neska-mutilei elkarrekin dantza egiten.

62. Nesken dantza taldea Bergarara

- **Erref:** ANT-070/021
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:50:23. **Bukatu:** 00:53:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Lehenengo aldiz nesken dantza taldeak Bergarara joatea gura izan zuenean, Acci&ocute;n Cat&ocute;licako zuzendaritzak ez zien onartu. Hala ere, neskek Bergarako San Antoniora joatea erabaki zuten.</p>

Transkripzioa

- Zu zeuk in dozu dantza? Zure taldiak in dozue dantza Antzuelatik kanpo?
- Antzuelatik kanpora pasau jakun, ba pentsau giñun, bueno, beste mutil

bi, nere gizona izan zana eta bestia, horrek bixak in zebeu Bergaratikan San Antonion, San Antonioko fiestetan pentsau zebeu Antzuelako dantzariak eruatia, eta galdetu zotsen horri eta a bai, [...] eta pentsau zebeu itia, han San Antoniora jutia, baiña zenbat bihar daben, ez eta ez dakit zer, eta ez dakit zenbat izango zan, seirehun-zazpirehun pezeta? Baiña in auen tratua erak. Ze jaleo izan zan hori! Hori izan zan jaleo bat terriblia. Akzion Katolikakuk hasarratu jakun zerak, direktibakuk, eta hori ezin leikiela in, Akzion Katolikak ezin leikela kobrau pezeta bat, eta bestiak esan zotsen kobrau in bihar dala porke guk orduan gastuak eukitzen gendun, alpagatak geuk ipiñitzen giñutzen, erropia asko geuk ipintzen giñuan, porke orduan ez euen dirurik hor. Eta klaro, famelixa batzutan pixua zan hori, orduan gauza asko falta zan ondiokan, dirua bihar dala horrek pagatzeko. Eta zeoze etarutzen baldin bada ba gurago dabela eta.

- Ez euen gura e?

- Ezetz! Hasarretu. Ba jun ingo giñala ba, ya txistulariak gertu geunzkan eta jun ingo giñala. Makillak, arkuak ziren udaletxeak, udaletxiak egindako arkuak ziren. Makilla batzuk, makilla dantzia bat itten giñuan makilla haundi batzugin, eta makillak ziren Eibartikan ekartzen ziren, hementxe tanborreru zera, grupokua zeuan, lana itten zebana eta harek ekarri zoskun, ekartzen zoskun, eta banderiña geunkan Akzion Katolikakua, bere insignia, bueno, mutillena zan baiña, bere insignia eta ondo egindako gauza bat. Ha be ez goskuen lagako, arkuak eta zerak ez goskuen lagako, ta hori [esatsaun]: “arkuak udaletxeak dira, makillak berriz handikan ekartzen dira, eta gonak eta berriz Bergaratikan ekartzen dira eta beste danak geuk ipintzen dogu, asike ezin dozue ezer esan”. Ba banderiñik ez doskuela emungo.

63. Eliza dantza-talde mistoaren aurka

- **Erref:** ANT-070/022
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:53:09. **Bukatu:** 00:57:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Acción Católicakoek euren ikurra eramatea ukatu zieten, baina Puritak berak egindako banderatzarekin joan ziren Bergarara dantzara. Acción Católicakoekin harremana eten zen. Geroago Bartzelonara joateko aukera izan zuten, baina orduan herriko abadea izan zen galarazi ziena, mutilekin dantza egitera zihoazelako. Bartzelonara ez zen azkenean inor joan, ezta mutilak ere. Dantzari guztiak atsekabetuta geratu ziren. 15 urte inguru izango zituen orduan Puritak.</p>

64. Gerraosteko gosetea

- **Erref:** ANT-070/023
- **Iraupena:** 0:04:26. **Hasi:** 00:57:56. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Aitak bazituen terreno batzuk eta, garraiolaria izanik, salmentarako jakiak ekartzen zituen. Horri guztiari esker, Puritaren etxean ez zen gerraosteko gosetea nabaritu. Egoera ez zen izan berdina etxe denetan. Puritak gose denborako pasadizo pare bat kontaktzen ditu.</p>

Transkripzioa

-Lehen aittatu dozu erropak itteko eta alpargatak erosteko eta kargia zala famelixa batzutan eta, klaro, bihar bada hori zuek hasiko ziñain dantzan gerraosteko ondiok gosetia eta pasau barik, ezta?

-Bai, porke ondikan berrogeittikan berrogeita hamarrera egon zan bastante zera, ez euan orduan erropa erosteko eta artian, artian sekuela asko zeuan orduan artian e? Famelixetan ta...

-Zuek hemen etxien goserik edo estutasunik euki dozue?

-Ez, guk ez giñuan pasau. Porke guk terrenuak geuzkan, eta gurian aitta oso zan artian zera euki arren, kamioia-eta, harek batian artua eta babia ez zan faltatzen gurian. Patatia be ez, eta baten batzuk ekarri eta "aunque sea" ba, han gertau itten zan.

-Zure aittak terrenuak alkilauta-eta eukitten zittuan?

-Terrenua geunkan geuria.

-Labrantzarik itten zeuein?

-Labrantzia, bueno labrantzia, terreno bat ba soro bastante, neure amana zan haura, hemengo etxe zeratikan, amana zan haura. Gero zeukan alkilauta beste etxe bat, edo beste soro bat haundixa zeukan aittak alkilauta zeukan, ta harek bueno, haura zan oso zera, harek hurringu igual erosten zeban sagasti bat sagarraz beteta, sagar hareik batu eta hala, nere ahizpa zaharrena eta anaia benga! Eibarrera igual saltzera bialtzen zittuen.

-Plazara?

-Negoziantia. Eta juten baldin bazan Naparruara edo Rioja aldera-edo, harek ardaotara eta lastotara juten ziren asko. Baiña holako biaje zeren batekin juten baldin bazan, ez baldin bazaukan ezer hartu eta kamioia beteko zeбен, piparraz, ba piparrakin.

-Eta gero piparrak saldu.

-Piparrak saltzen. Niretako hasarrerik haundixena hori izaten zan. Etxerik etxe piparrak saltzera jtia.

-Antzuolan bertan?

-Horixe!

-Otzariakin etxerik etxe piparrakin?

-Ez, jun eta enkargua emuten zotsun eta gero hartu eta eruatera, hortantxe. Eta nire hasarria! Eskerrak geukan...

-Zure aittak kamionakin orduan diru apurtxo bat juntau itten eben.

-Bai horixe. Horreik hola ekartzen zittun. Klaro, gustora auen jentia, ez euen orduan, ez zan ekartzen, tamaiño horretan hemen ez zan egoten hola, eta ekartzen zeбенian piparrak-eta ba, merke egoten ziren orduan hola ekarritta. Eta baiña niri sekulako lotsia emuten, lotsia, eskerrak neukenari lagun bat hemen, haura ipintzen naben aurretik eta...

-Orduen dendia ez, baiña zeuek etxerik etxe saltzen zittuein aittak ekarten zittuenok.

-Bai, bai, harek...

-Eta zuk zeuk gerraosteko, hemen kasurik Antzuolan ez dakotzu goguan hola, famelixan batzuk geizki pasautakuak edo?

-Famelixak asko geizki pasautakuak dauz gosiakin, bai. Nik entzunda

daukat batena, eta hementxe bizi zan gertuan. Eta juten zala babia hartzen, baba denporan, gabaz jun eta babia hartzen zeban.
-Sorotik?
-Sorotikan. Eta klaro, nagusixak ikusi zeban baiña esaten zeban, persona hori hortara juteko, ze tamaiñotako gosia pasatzen daben horrek! Porke zan persona bat oso zintzua eta zera. Hortara juteko!
-Batzuk gogorrak ikusiko zittuein.
-Nire lagun batek esaten zostana, porru-patatak gustatzia, eta niri gustatzen jatela porru-patatak, eta harek esaten zosten, bai baiña zuenian patatak porruakin jaten dira eta gurian berriz porruak patatakin. Ez zala berdiña, ta porruak [...]

65. Purita, dantza irakasle

- **Erref:** ANT-071/001
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:02

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Karmele San Sebastianen eta Puritaren artean dantza eskola bat antolatu zuten Antzuolan. 12-16 neskari irakatsi zieten dantza egiten, Gregorio Santa Kruzen laguntasunarekin. Talde hori desegin zenean, herriko abadeak eskatuta eta haren diru-laguntzarekin, beste talde bat antolatu zuen Puritak. Berak orduan (1964an) egindako jantziekin dantza egin dute aurren Pospolinek.

66. Kanpai-hots desberdinak

- **Erref:** ANT-071/002
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:06:11

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpaiak jotzea izan zen Puritaren beste afizioetako bat. Lehen eskuz jotzen zituzten, baina orain kanpai-hotsak ere elektrifikatuta daude. "Sukanpaia" eta "Aingeru-kanpaia" (umeren bat hiltzen zenean jotzen zena), kanpandorrean jotzen ziren. "Kanpantxoa", berriz, elizan zegoen soka batetik tira eginez jotzen zuten. Zapatu arratsaldeko ordu bietan, "Buelako kanpaia" jotzen zuten, hurrengo eguna jai eguna zela ohartarazteko. Sakristaua izaten zen kanpaiak jotzearen arduraduna.</p>

67. Kanpandorrea erre zenean

- **Erref:** ANT-071/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:08:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

<p>Azken garaietan kanpaiak gutxitan jo ditu Puritak; hildakoena eta meza ohartarazteko, batez ere. 1952an kanpandorrea erre egin zen, oinaztarriak jota. Horren ondorioz, sarbidea nahiko zaila jarri zioten kanpandorre horri, eta Puritak ezin izan zuen gehiago igo. Elektrifikatu zutenetik, kanpaiak jotzea asko erraztu zen.</p>

68. Elektrizitatea kanpandorrean

- **Erref:** ANT-071/004
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:10:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Eguraldi txarra egiten zuenean, argindarra eten egiten zen, eta orduan kanpandorre azpitik sokaz jo behar izaten ziren kanpaiak. Kanpandorrea azkenengoz eraberritzean, soka hori ere kendu egin zuten, eta orduan kanpandorrera igo behar izaten zuten elektrikoki ezin zirelako jo. Geroago behin betiko konpondu zuten arazoa.</p>

69. Umetan kanpandorrera

- **Erref:** ANT-071/005
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:36

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Umetan sakristauarekin joaten ziren kanpandorrera. Lehen kanpaiak gehiago jotzen ziren orain baino; "Kanpantxoa" ere ez dago jada. Kanpai guztiak erritmo berarekin jotzen ditu elektrikoak. Suaren kanpaia, azkarrago jo behar denez, sokaz bakarrik jo daiteke.</p>

70. Kanpai-hotsen izenak

- **Erref:** ANT-071/006
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:15:18

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>"Aingeru-kanpaia", "Altamirako kanpaia", "Antigua aldekoa" eta "Buelako kanpaia", plaza aldekoa, ziren kanpaien izenak Puritak kanpandorrera igotzen zuenean. "Kapantxoa" behean zegoen. Puritaren ustez, kanpaiek lehengo soinu ederra galdu egin dute. "Aingeru-kanpaia" gaur egun ez da batere entzuten. Oinaztarriak kanpandorrea jo zuenean, kanpairik gabe egon ziren aldi batean. Puritaren aita aldi horren barruan hil zen eta kanpai-hotsik gabe joan zen.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com